

EGĀN



3-4

1955

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SUMARIO

- Adiskide Berri*: Berriketan.
Etxaniz'tar Nemesio: I. Ernai. II. Gain-Bera. III. Deba'ko San Drokeak.
A. Arrúe: Kontu Kontari, Txantxangorria.
Antonio M.^a Labayen: Elizanburu. (Continuación).
Apat Etxebarne: Naas-Maas.
A. A.: Jan Edanak.
Ibalan: ¡Entzun! ¡Emen Donosti!
Dunixi: Gure Lurraldeak.
J. M. L.: Erakusketan.
L. M.: Zinema.
E'tar Y.: Oargui'ren irugarren batzaldia.
F. Arotzena: Adabakiak.
Z. A., L. M.: Liburuak.

DIRECCION Y REDACCION:

A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena.

COLABORADORES:

Valentín Aurre-Apraiz.
«Dunixi».
Echaide (J.).
Nemesio Echániz.
José Iturria.
Antonio María Labayen.
Manuel Lecuona.
José María Lojendio.
Mirande (J.).
P. Villasante Cortabitarte.
Aniceto Zugasti.
Etcétera.

Berriketan

Pío Baroja'k esan digu:

Etxe-barren itzalean arkitu dugu Baroja, bizkor, argi eta berriketazale.

Urteek etzekoi egin dute: lau urte auetan ez omen da ia kanpora irten. Orregatik edo, arriturik dago oraindik Madril'go geltokian ikusi duen jendearen emanarekin. Txingurritegia zirudien noski.

Alako triste-antxa nabaitzen du bazterretan. Bai Bera'n ere, erriko jaietan bertan, zer dela-ta ezpadaki ere... Bearbada, eta gure aoz ari gera orain, kontrabandoak beeraldia duelako egun auetan.

Izketa nora gabe dabil, atzera eta aurrera. Orain 50 edo 60 urteko eliz-predikuetara jo dugu azkenean, eta Baroja'k badu zer esana gai orretaz. Arritzekoa dirudi, baiña ezta arritzeko. «El Globo»-n sermoi-kritika beti egiten zuten.

Ia galdetu genion zein dauzkan obetzat, orduko sermolariak ala gaurkoak. Baiña oraingo literaturari lotzen gatzazkio.

—Beera dijoa 40 urte auetan. Frantzia'n eztago inor neurritz gaiñekorik. Joan den mendean, berriz, zenbat! Eta Ingalaterra'n, Rusia'n, Ipar-Amerika'n. Orain, eztago ezer. Italia'n, Papini'ren gisako jende kaxkar ta itxuragillea. Izengoitia daraman literatura ori erdipurdikoa izaten da. Idazle andiek, Cervantes batek esateko, etzuten orrelako txartelen bearrik. Europa'k, literaturan, beeraldia du; ala iruditzen zait beintzat. Zerbaitengatik izango da.

—Eta España'n?

—Gauza berririk gutxi. Carmen Laforet'en lanak umekeri-an-

txa badute; ez tira ifloren barrena ifiarrosteko gai. Cela, berriz, ojulari ta zalaparteroa da. Bat aspertzen du orrek azkenean.

—Benavente?

—Bere izena, il orduko, desegiten asia da. Eta ori jendea liluratua zeukalarik. Beti aurren ageri zen España'ko teatroan. Bazekien bere lanbidea, neri kursi xamarra iruditzen bazitzaidan ere. Gizon bezala, bazituen orrek ere... Nobel-saria eman, eta 4.000 libera ez gastatu nai Suezia'ra joateko.

—Zinema?

—Garai txarrean, zaartuxea, arrapatu ninduen. Azorin berriz zinema-zale amorratua biurtu zaigu. Nik eztiot zinemari deus ikusgarririk sumatzen.

—Ba aal da euskal-pinturarik?

—Eztut uste. Neretzat, pintura, joan den mendeko azken urteetako, frantses inpresionistena. Orduan ikusten ziren pinturak Paris'en. Merke baiño merkeago gañera. Sisley'renak, esate baterako, 2.000 liberan bakoitza. Amar egunen buruan etorri, eta salgai oraindik. Emen Regoyos'ek bazuen zerbait barrenen. Bazituen ordea kalte egiten zioten gauzak. Metro ta erdi luzeko kuadroa, eta zeru-zerrenda mear bat besterik ez. Eta jendeari ez gustatzen ori. «Gizona, esaten nion, zeru gelago ikusten oitua daude». Euskal-errian etzuen aldekorik izan.

—Zuloaga'ren pinturek eta zuen, 98'koen, idaz-lanek ba aal dute zer ikusirik elkarrekin?

—Baldinbadute ere, nik ez tut garbi ikusten. Nik Zuloaga enizuten batere gogoko, agian pinturarekin zer ikusirik etzuen arrazoi batengatik. Zerbait izan nuen batean berarekin, beste nonbait esan izan dut... Erretratoa egin nai izan ziren gero.

—Ba aal da euskal-musikaririk?

—Ezterizkiot batasunik izan denik. Arako leengo bertsolari arek... Iparragirre'k, bazuen zerbait buruan.

—Zure gaztaroko musikoak?

—Chueca. Ezagutzen nuen franko; maiz joaten nintzaion ikustera. Berebizikoa zen izan ere, paregabea. Gizon xelebrea beste aldetik. Eri zegoen, diabetesekin. Etxeak, irugarren edo laugarren bizitza, orue bat zuen aldamenean. An jostatzen ari ziren mutikoei saski bat jeisten zien sokatik zintzilik, eta bi edo iru pezeta, goxoak erosteko. Gero jan egiten zituen. Izena, entzutea, etzitziaion batere ajola. Eta ura etorria... Arifa zen, nekerik gabe zetorkion kantua. Bretón, berriz, etzen agure aspergarri bat besterik.

—Zure gizaldiko idazleetan, Euskal-erritarrak?

—Enituen oso gogoko. Salaberria'k ezin zuen iflor ikusi. Bue-

no'k etzuen bekaitzik; ongi idazten zuen, argiro. Etzuen euskal-usai andirik. Maeztu arrunta zen zearo, nere ustez.

—Eta Unamuno?

—Eroxka, eta arroa, arrorik bada. Mundu zabalari itzegin, ustez, eta kanpokoek ez ezagutzen. Ta ura azken zoroa... Gauzak bere gogora eskuratuko zituelakoan zegoen, erria menderatua baitzeukan ustez. Arrokeriz eta beldurrez beterik, edozein gizon arruntek egingo zukeana etzuen jakin egiten. Erria bereganatuko zuela sinetsi, eta erria oso-osorik etsai biurtu; Salamanca'ko arriak ere kontra jeiki zitzaizkion. Etsita il zen, ori ikusirik.

—Zer egin du Donostia'k 70 urte auetan, galdu ala irabazi?

—Erosotasunean irabazi. Gogoa zabaldu bide zaio, agian, baiña eztu orain deus ikusgarririk. Erri on bat da, berexetasunik gabea. Donostia, egin den bezala, euskalduntasuna desegiteko tresna bat da. Bilbao, oraindik erdaldunago.

—Euskal-erria eta euskal-gauzak nola ikusten dituzu?

—Gogoko izan dut beti, urrutiko sorterri-miñak eraginda bezala, Euskal-erria eta euskaldun jendea, baiña batez ere base-erria. Bilbao'ko kaleak beste nonnaikoen antzekeak dira, eta zer ajola dio iñori asturiano edo gallego bat bezala mintzatzen den euskaldunak? Gauza oriek iltzen ari direla uste dut, ordea. Datorren mundua arruntagoa izango da, eta lelo berberak izango ditugu alde guzietan.

—Euskeraren etorkizuna?

—Atzeraka dabil, nora jorik eztuen erreka gisa. Suntsitu bearra da. 500 urtez edo iraungo du, baiña galduko da. Neke du izkuntza illun batek izkuntza argi bati gogor egiten. Duela 70 urte, etsia nago, geliago egiten zen euskeraz Donostia'ko kalean. 200 urte barru, eztu iñork egingo.

—Ezer egin bear ote genduke, gal eztedin?

—Ori barrenak eskatzen dio gizonari. Euskerak eztu ia ezer-tarako balio, ordea. Gauza bitxi bat bezala da, etxean gorde eta datozeinei erakusten zaien orietakoa. Nere iritziz, euskeraren agonia ikusi dugu, azkeneko 50 urteotan. Or geldituko da 100, 150, 200 urtez, jakintsuentzat. Latiñetiko erderak errazagoak dira. Iskillu eskasak ditu euskerak borrokarako.

—Onik aterako aal luke euskera agintarien laguntzak?

—Etzait iruditzen agintariek olakorik egin lezaketenik. Gogor egingo lieke jendeak agintariei, arriskua izanagatik, euskaltzale-tasunik baldinbalu. Euskaldunik asko da, euskeraz jakiñik, egiten eztenik. Erri auetan ere aultzen ari da.

—Badirudi, alare, askoren gogoak aldatzen ari direla.

—Aldakuntza ori benetakoa den jakin bear, ala itzurakeri utsa. Ori jakiniaren gainean ongi dagoenak bakarrik esan dezake. Pizkunde antzeko zerbait, nik eztut ikusten.

—Joan den mendeko bi gerrateetan euskaldunik geienek karlistengana jo zuten. Zergatik ote?

—Apaizarengatik edo, familiarengatik edo. Apaizaren eta karlistaren ondoan, bizia garbiagoa izango zelako usteagatik edo. Nekazariak, alde guzietan, eztira berrizale. Frantsesek ere, luzaroan, gorroto izan zuten olaxe Errepublika.

Kanpora geranean. Iltzea»-ren sabel zabalean liburu, irudi, oroigarriak gelaz gela ikusi ondoren, mendien itzala luzatuxea da. Altzate'n barrena, eztugu Urtzi-Thor eta Lamien aztarnik sumatu. Odei arifnak, ordea, dantzan dabilta zeruan, Jaun'en garaletan bezala, eta ibaiaren ibillera ixilla lagun dugu luzaroan. Bidaso-alde onek garbi dauka azala oraindik, giza-erlauntz eta txingurritegirik gabe. Dituen atzerapideak ere utsak dira: euliak eta...

ADISKIDE BERRI

Galtzen ari ziran izkuntza askok luzatu dute bizia, iztunen gogoan aldatu dalako. Arriskuz betea dago orrexeagatik izkuntzen il berria zabaltzen dabiltzan profeten lanbidea.

U. Weinreich, "Languages in Contact".

ETXANIZ'TAR NEMESIO

Ernai

Gure Naas-Maas atalean izendatzen
degun italiar Giuseppe Ungaratti'ren
olerkitxo baten biurkera.

Gau osoan
egon nintzan
ildako lagunaren
albora jaurtia.
Ozkarbi-zillarpean,
aren ao estu itxia,
illargitara zegon
itzulia.
Esku illen otza
nere ixillean josirik,
maitasun goriz
idatzi nun
gau luzean.
Ez naiz beñere
ain sakon sartu
bizitzaren
bar-muñean.

Gain-Bera

Nere bizitza-gelak
atsaldera du leioa;
andik esegita dauzkat

oroipen zapiak;
ugin-jolastiak
nere gogo-ondartzan
lertzen zaizkit, ta argiak
su-negarra dario
inular-dantzan.

Deba'ko San Drokeak

Au dek, au dek,
au dek umoria!
Utzi alde batera
euskaldun-jendia.

Kalean gora, kalean bera,
kalean gora zezenak;
Kalean gora, kalean bera,
eta moskorrak errenak.

Au dek, au dek,
au dek gau luzia!
Noiz amaituko ote dek
gure egarria?

Kalean gora, kalean bera...

Au dek, au dek,
au dek moskorren legia:
ardoaren lañotan
lausotu begia.

Kalean gora, kalean bera...

Au dek, au dek,
au dek loguria!
Edaten pasa degu
bartko gau guzia.

Kalean gora, kalean bera...

Au dek, au dek,
San Droke guria!
Diruak gastatuta
patrikan aizia.

Kalean gora, kalean bera...

Au dek, au dek,
astelen tristia!
Lanerako gogorik
ezin ekarria.

Kalean gora, kalean bera...

Au dek, au dek,
au dek kaskarreko mifia!
Utzi dezagun azkar
edateko grifia.

Kalean gora, kalean bera,
orain asarre andrea;
Kalean gora, kalean bera,
ta aste guziko gosea.



Txantxangorria

*Selma Lagerlöf'en ipui batetik
artu ta moldatua.*

Gure Jauna'k ezerezetik zeru-lurrak-eta zeru-lurrak ezezik baita bizikor eta belarki guziak ere, bakoitzari bere izen egokia ezarriaz sortu zituan denbora aietan zan.

Konta genezazke orduko gertaera franko. Gaur ulerkaitz zaizkigun munduko gauza asko argieraziko lituzteken orrelakoak.

Egun batez, Gure Jauna'ri, Paradisua'n txoriak kolore biziez apaintzen ari zala, aitu egin zitzaizkan margoak. Beraz, eta ala bearrez, bazter batean kondarren batzuk aztuta galditu ezpaizitzaizkion, gaur kardantxoloa, esate baterako, etzan bear bada dan bezain dotorea izango.

Orobat, orduan egin zan astoa gaurko bere belarri luzeen jabe. Jaio ta Paradisu'ko ibarretan oinkada batzuk eman orduko, astoa aztu egin bait-zan nola zeritzan, eta iru bider gutxienez galde-egin bear izan zion, bere izenaz, Jainkoa'ri. Azkeneko aldian, Jainko oñak, urduri-samar, bi belarrietatik eldu ta tiraka, obeto entzun eta geiago aztu etzedin, esan zion:

—Zure izena asto, asto, asto da.

Ta ordutanik ditu astoak orren belarri luzeak.

Egun berean, erleari erriertatxo bat eman bear izan zion Gure Jauna'k. Erlea, jaio ta bereala, ezta pillatzen asi bait-zan. Eta gizonek eta abereek, eztiaren usaia nabaritu zuenean, dasatzera urbildu ziran. Baña erleak dana beretzat gorde-naiean, abaraskara urreratzen ziran guziei, bere pozoiezko miztoaz zizatuz, alde-egin-erazten zien.

Ikusirik au Jainkoa'k, erleari deitu ta esan zion:

—Eztia, nik oraindano sortutako gauzarik gozoena, pillatzeko eskua badezu. Baña ez antzi, ezin izan zindezkela zure lagun urkoarekiko artu-emanetan orren zurkaitza. Beraz, gogoan eduki beti, eztia progatu nai duan gizon edo abere bati eltzen dion erleak, biziarekin pagatuko duala bere utsikia.

Bai, au gertatu zan kilkerra itxutu ta txindurriak egatxoak galdu zituan egun berean.

Amaika gauza nabarmen jazo ziran egun artan!

Jainkoa'k, maitekor eta gurgarri, lan-da-lan bere aulkian eserita igaro zuan egun osoa, ta illunabarrean, txori txiki arre bat sortzea gogoak eman zion.

—Txantxangorri, deituko zera zu —esan zion Gure Jauna'k, bukatutzat jo zuanean.

Eta, eskuzabalean ipiñirik, egatzen utzi zion.

Txantxangorriari, biraka egan, Paradisu'ko lur ederrak ikusiaz, ibilli ondoren, bere buruari begiralditxo bat ematea otu zitzaion. Orduan oartu zan, zearo mokotik isatseraño, arrea zala. Alegia, bularrean luma-izpi gorri bat ere etzuala.

Txoritxo etzan aspertu ere egiten urean bere buruari begira. Baña alperrik: bere soñean luma gorri ale bat ere ez ageri...

Ta eiaka ta lasterka, Gure Jauna'rengana itzuli zan.

Jainko Guzalduna'k bere jarlekuan eserita, doatsu, jarraitzen zuan. Bere bi eskuetatik, jaio orduko, ingumak egatzen ziran. Sorbalda-gañean berriz, kokatuta, usoak kurruka ari ziran. Eta inguru-guzian, lur-gañean, liliak, arrosak eta xulufreak, naroro ta non-nai ernatzen ziran...

Txantxangorriak blotza naigabez ler eztanda egiteko zorian zebilkien, baña, aidean lirainki bira batzuk eman ondoren, alde-ratu zan poliki-poliki Gure Jauna'rengana, ta, atzenean, bere eskuan kokatuta gelditu zan.

Orduan Jaun Zerukoa'k ea zer zebillen galde egin zion, eta txantxangorria ausartu zan mintzatzerara:

—Galderatxo bat egin nai nizuke.

—Galde nai dezun guzia, txoritxo.

—Nolatan izendatu nauzu ni txantxangorri, mokotik isats-murreraño osoro arrea banaiz eta soñean nabardura gorri txiki bat bederik ere ezpa-det?

Ta txantxangorriak, alde batera ta bestera burutxo era-billiaz, tristuraz baterikako bere begi beltz eskaleak Jauna'rengana biurtu zituan. Ageri bai-ziran, ingurumaian, urrez pintar-ratutako nauder gorrantzak, lepo-zildai gorriekiko egazti iztunak, gandar kolore miñeko ollarrak... An-emenka, berriz, txi-mirrikak, ostrailika-arraiak, krabelin gorri erazekiak...

Ta txoritxoak bere artean zion:

—Ez nuke bada asko bear. Kolore gorri apurtxo bat naikoa nuke txori polit bat, nere izenari egoki dagokion tankerakoa izateko. Baña, zergatik deitu bear naute txantxangorri, arras arrea ba-naiz?

Onela beregan mintzatu ondoren, itxedon zuan Jaun onak esan zion arteraño:

—Ai, laguntxo! Zure bularreko lumak gorritz apaintzea aztu egin zait. Ordea, au une bateko lana baizik ez bait-da, ta itxedon zazu piska bat.

Baña, bereala, Jaun Zerukoa'k, irriparez eta maiteki, gaineratu zuan:

—Txantxangorri izena ipini dizut, eta txantxangorri deituko zera. Baña, bularreko luma gorriak zerorrek irabazi bearko dituzu.

Ta Jainko onak eskua luzatu ta berriro mundu zabalera bidaldu zuan.

Txantxangorria, buru-austez baterik, egatu zan Paradisua'n zear. Nola, baña, bera bezain txori kaxkar batek luma gorriak irabazi?

Sasi bat bere kabia egiteko aukeratzea baizik etzitzaion bururatu. Ta, an, arantza tartean moldatu zuan bere gordetoki ta bizilekuxoa. Sasi-arros-ostoren bat erantsi ta gorrituko ote zitzaion bere paparra, itxedoten zuala, zirudien...

* * *

Egun eder-gogoangarri ura ezkeroztik ezin konta-ala urte igaroz ziran. Ta gizonak eta abereak Paradisu'tik alde-egin eta lurbira osoan sakabanatuta bizi ziran. Gizonak, gañera, beren egin-kizunetan agitz aurreratuz, bazekiten lurra maneaten. Baita itxas-bideetarako ontziak antolatzen ere. Berebat, eratzen zituzten jantziak eta apaindurak, eta aspaldi zan eleiz eder-galantak eta uri aundi-bikafiak —Tebas, Erroma ta Jerusalem, adibidez—, jasotzen ikasi zutela.

Ta zabaldu zan, beñere munduko kondairaren oroipenean aztuko ez dan egun berri bat.

Egun aren goiz-erdi aldean, txantxangorria, Jerusalem'go arresi ta murruean inguruan, muño soil batean eserita, kantari ta txaraka gañean bere kabian atsedeten zegozten umetxoekin, jostaketan ari zan.

Txoriak bere txikiei, Jainkoa'k mundua sortu ta izenen banaketa nola egin zuan, kontatzen zien; txantxangorri bakoitzak munduaren asieratik bere umetxoei kontatzen zien bezala.

—Ekusten dezute —esan zien, goibel, amaitzeko—. Ordutanik orrenbeste urte igaro, onenbat arrosa zimeldu, ifiork ezin kontata-ala txoritxo arraultzetatik jαιο, ta, alaere, txantxangorriok arreak jarrai. Oraindik ez degu nabarduratxo gorririk iritxi.

Txikiek beren mokotxoak eragabe ediki ta galdetu zuten, ea beren aurrekoak kolore gorri ori iristeko alegiñik egin ez al zuten.

—Guziok alegin osoak egin ditugu —erantzun zien zarrak—; alaere, ordea, ez degu ifiortxok ere garaipenik ardietsi. Lenengo txantxangorriak bere antz-irudiko beste txori bat ikusi zuan orduko, bere biotzeko berotasun osoz asi zitzaion maitatzen. A! —esan zuan—. Orain kontuan jausten naiz, Jainko onak elkar-maitatzea nai du, maitasun garrak nere bularreko lumak gorriazterafio. Baña etzuan bere eresia lortu, ez eta beraren ondorengoak, eta zuek ere ez dezute ziur asko lortuko.

Txantxangorrikumeak, sekulan beren paparretan luma gorririk etzituztela ikusiko etsirik, txioka itunki saio bat egin zuten.

—Gure kantuz ere zerbait uste ta sinistu genuen —txori zarrak jarrai zuan mintzatzen, txinta luze-alai batzuk egifiáz—. Lenengo txantxangorriari, berotasun eta itxaropenez kantatzen zuan bakoitzean, bularra azi ta borobiltzen zitzaion. A! —zión—, nere bularreko lumak, kantu-suaz piztuko dira. Baña etzuan orrelako doarik eskuratu, ta geroztik ere ifiork ez du eskuratu ta ezta eskuratuko ere noski.

Berriro, txoritxo gazte aien erdi-soildutako eztarrietatik, txio samiñ bat irten zan.

—Gure ausardi ta kemenean ere itxedon izan oi degu —jarrai zuan txori zarrak—. Araurreneko txantxangorria, barren eta kanpo su ta gar, bulardetsu leiatsu zan guda gogorrean beste txorien aurka, ta eraso-sukar arretzaz bere paparreko lumak gorritatu zitzaizkion. Baña geroztik etzuan beste ifiork sari au irabazi, ta zuek ere ez dezute irabaziko, ifiolaz ere.

Txori kokkorak alaere, adoretzu, beren gura berezia lortzeko egifiñalak egiteko asmo sendoaz geratu ziran. Txori zarrak, ordea, atsekabeturik, etzutela al izango, oartu zien. Nola, alegia, beste asaba ospetsuak lortu etzutena ardietsi? Zer egin zezateken maitatu, abestu ta gudatu baño geiago? Zer...?

Txantxangorriak etzituan itz auek bukatu, alabaña Jerusalem'go atetik jendetza aundi bat urbiltzen zan txori-kabia zegoan muñora.

Bai, an zetozen, aldapa-gora, abere-gañean zaldun tinkoak, aztamakil luzeekiko oifezko gudari lerdanak, eta iltze ta ma-

luekin, borrero kopetillunak. Baita apaiz eta epaille begiratu zorrotzeko batzuk ere. Emakume negarti bat edo beste ere bai, zotinka. Eta guzien atzetik, dantzan eta garrasika, arlote iguin-garri ugari, bemallako erri-samalda basatiarekin nastuta.

Zutik kabi-ertzean izututa zegoan txantxangorria. Sasi aula zapaldu ta abarrakaturik, bere txikiak azpian ilda geldituko ote ziran beldur zan.

—Ixo! Geldi! —arriskuaz umetxoak oarreraziaz zion—. Elkarren kontra bildu ta estutu zaitzete guziok. Kontuz!, gure gañetik zaldi bat igarotzera dijoa-ta, Iltzedun oiñetakoekiko soldadu bat ere badator onerontz. Jende-taldea berriz bertaratzen ari da, itxas-baga baten gisan.

Bat-batean eten zituan bere oiua, eta mutututa ta arriaren eran geratu zan, azturik ia arrisku guziak, eta, atzenean, sartu zan kabian eta zabaldu zituan egatxoak txikien gain.

—Au ikaragarriegia da! —txiotu zan—. Amets txar bat dirudi. Iru gizaseme gurutziltzatzera dijoaz.

Ta zabaldu zituan berriro egatxoak, umetxoek ezertxo ere ikusi etzezaten.

Mallukada gogorak, zizpuru ta antziak eta jende-tzar amorratuaren argorioa ta iskanbilla baizik etzan entzuten...

Txantxangorriak jarrai zuan ikuskizun arrigarri ari begira, ta bere niniak izu-ikaraz uaunditu ziran. Ta iru gizarajo aietatik ezin iñola ere kendu zituan begiak.

—Zeñen biotz-gogor eta odolgiroak diran gizonak! —ixil-une baten ondoren mintzatu zan txioka—. Iru lagun oriek gurutzeen iltzea jostea naikoa ezpaluteke bezala, bati gañera arantzeko koroia ezarri diote. Bai, ta koroiak eragindako zaurietatik odola agerian dario. Ta ori, mundu guziko gizakumeak maite-izateko gai ta duiñ dalarik. Ain gizaseme ederra bait-da ta ain eztiki begiratzen bait-du. Sarrasti orri begira, nere biotza gezi batek zulatzen duala, derizkiot.

Arantzeko koroiarekiko gurutziltzatu artzaz txoritxoak bere biotzean oartzen zuan kupida, geroago ta geiago azitzen zijoan.

—Ni arranoaren anaia banintz —zion bere baitan—, esku oriek zulatzen dituzten iltzeak atera ta nere atzapar gogorrez urkatzalle guziei ortik usu iges-egin-erazoko nieke.

Azkenean, gurutziltzatua kopeteen beera odol-matazak mara-mara zerizkiola ikusita, txantxangorriak ezin jarrai izan zuan denbora geiagooan geldirik.

—Txikia ta argala izan arren, zerbait martiri orren alde egin bearko det —esan zuan bere artean.

Eta kabia utzi ta egatu zan aidera. Gurutziltzatuaren jiran,

baña geiegi beregan urbildu gabe —ain betizu ta iñozoa baitzan— eman zituan bira zabal batzuk. Baña, geroenean, ta piskanaka, ausartu ta azkartu zan gurutziltuarengana alboratzeraño, ta bere mokotxo txikiak atera zion kopeteko arantza zorrotz bat.

Bein-bitartean, txantxangorriaren bular-gañera gurutziltzatuaren bekokitik odol-xorta bat erori zan eta paparreko luma zurbillak gorritz pintarraturik gelditu zitzaizkan.

Ta gurutziltzatuak, ezpañak erdi-idikirik, esan zion gozaro aopean:

—Zure errukiaz, zure bernaga ta kasta guziak mundua sortu zanetik irrikitzen egon dan sari-doaia merezi izan dezu.

Txantxangorria kabira itzuli zanean, bere umetxoak, atseginpozez, eta ardalla bizian, txiotu zioten:

—Zure bularra gorri biurtu da! Zure paparreko lumak arrosaren orriak baño gorriagoak dira!

—Au ez da doakabe orren bekokiko odol-tanto bat baizik, eta deseginda geltituko da, ituzura edo putzuzulo batean bustitzen naizen orduko —erantzun zuan, illun eta geldiro, txantxangorri zarrak.

Baña iturri ta errekatxoetan murgildu-arren eta urez bein eta berriz busti ta egortzi soña, bere bularretik etzuan koloreak egundafño aienatu, ta beraren umetxoak azi ta gogortu ziranean, argitu zan nabardura odola bezain gorri beren paparretako lumentan, gaur oraindik egungo egunean txantxangorri oroen paparretan disdiratzen duan bezala.

A. ARRUE



Euskaltzaindi-ko 6'garren solas-aldia

ANTONIO MARIA LABAYEN

Elizanburu

Bere bizitza ta lanak

(*Jarraituko da*)

Goazen orain «MARIA» gelgarria ederetsizera. A zer nolako pitxi eder eta esku-erakutsi bikaina ederzaleentzat! Elizanburu asmo ta jakitez nagusi, izkeraren jabe, geiez ase beterik puska ederrenetarikoa, *chef d'oeuvre* txapelduna eskeintzen digu.

Neurriz eta doñuz errikoa, lorietan, antziflako koplakarien antzera lenengo gaia aipatzen asten da:

«Bertzek erran baitute
Nik baiño lehen,
Hanitz adituz dela hanitz ikasten
Nik dakidan bezala, guziek arren
Jakin dezaten,
Beraz aipa dezagun Maria nor den».

Detxepare'k ere onelako neskatilla pozik ikusi zukela dio Mourlane Mitxelena jaunak. Nork ez? So egin zagun iduriz berderen.

Aztal biribil eta zangar hertsia
Eskuaren beteko zango bihia
ttipi-ttipia.
Golko bat aberatsa, lerdan gerria
erne begia
Nolako pampina den horra Maria!

Ahapaldi ederra, neskatzaren anbatekoa! Bertsuok edozein izkuntzetan emaztekien edertasuna goratzeko egin izan diranen aldamenean ipini ditezkenak. Gorputzaren edertasuna itzez adieraztea arlo zailla da. Andere Poesi ta Pintura-antzean muga dago. Estetika auzia bitarte Lessing'ek Laaconte'n diarduna. Margotierari ta ez Olertiari dagokiola soin-atalen aderra agerraraztea. Orregatik Homero'k eredu guzieren eredu "*das Muster aller Muster*" au digu soilsoilik: «Nireus eder da. Akiles ordea oraindik ederrago». Edo ta bestela: «Helena'k edertasuna jainkotiarra zuan», xehetasun geiago eman gabe. Lessing'ek (1) bait bazekien, milla jendek irakurriz geroz xehetasun oriek bakoitzak bere gisa artuko lituztekela.

Aitzitik Aretino'k Horazio'ri jarraiturik «*Ut Pictura Poesis*» erakusten die margolariari: emakumezkoen eder eredu arki nai ba-dute Ariosto'ren ahapaldiak irakurri ditzatela. Alzina'ren doaiak banan bana xehatzen bait ditu. Alabearrez poeta onak margolari edo pintatzale bear omen: «*Cuanto i buono Poeti siano ancora essi pittori*».

Bianea neve e il bel collo, el petto latte
 il collo e tondo, il petto colmo e largo
 Due pome acerbe, e pur d'avorio fatte (2)

Erdel-aipamena luzexko atera zait bañan barkatuko al didazute zeren arrotz esaera oiek gure olerkariaren gorapenarako izan bait dira. Ez genun gure Maria ahantzi nai ez! Begira Elizanburu'k zeinen dotore azaltzen dizkigun neskaxa maratzaren ekandu ta oiturak:

«Erle bat da Maria etche barnean
 Eta landan orobat ari lanean
 behar denean.
 Apaintzeko pulliki behin astean,
 noiz? Igandean!
 Uztai beharrik ez du soinaren pean.

Oraingo neskatzek ba-dute nun ikasi, segurki. Alare ez dago beti alai gure Maria. Gazteek ere goibel izatea zer dan ba-dakite. Ez dirauela goibelak, gaztetasuna pozkario iturri bait dute.

(1) Lessing. Laokoon oder über die Grenzen der Malerei und Poesie Leipzig.

(2) Ariosto: Orlando Furioso.

«Maria batzuetan ez yakin nola
goibel dagola
bertzetan nigartto bat yausten zaiola,
zer zaio axola,
Baluke nahi ba lu aise konsola.

Burutik ofietaraiño ahamen yastagarria Maria'ren au. Azkurri gozo ta indartsua azken itzetaraiño:

Erregue baldinba nintz zer Erregiña!

Erotiko bikaiña baiñan maite kantak ez zituen geiegi ugaritu.

Saratarrak bere bertsuak ongi neurtu josi ta berdintzen zekin. Larresoro'n ikasia izaki. Erotiko bikaiña baiñan maite kantak ez zituen geiegi ugaritu. Ortan Bilintx nagusi du. Indalezio Bizkarrondo'k kezka ori sartuagoa zeukan. *Juana Bixenta Olabe'n* grifña ori ageri du; *Izazu nitzaz kupira'n* gai bera darabilki; *Juramentuba*, *Neskatx bati' Dolores'i* eta abar maite irudimenez beterik daude. Nor ez da oroitzen *Bein batean Loyola-n* donostiarraren zortziko ezagun ezagunaz? Konparazioak ere egin ditezke, *Kontxesi*, *Malentxo*, *Kattalin* Maitoni, eta beste koplakarien maitegarri-izenak ikuskatuaz baiñan bai ote da Elizanburu'ren MARIA aifnakorik? Ene ustez au degu euskaldun *Minnesang* eredu. Norbaitek galdegin dezaidake ea Maria ori egitazko neskatxen bat izan ote zanentz edo ta amets-irudimen bat. Ala izanda ere ezur ta hamizkoak baiñan egitasun aundiago dute sarritan. Gure Unamuno ere iritzi ortakoa dugu. Elizanburu'k Maria izena maixko erabiltzen du, baiñan ez digu esan nor zanik. Euskaldun jator antzo bere biotz-atxikimendu ta gutizia isilik, ezkutuan gorde dizkigu. Agian izen hura ez zen izan emakume on eta eder guzien ikur bat besterik.

Gur olerkaria bukolikoa izan genun erotikoa baño geiago. Menditarren biziera maite du; etxea ta lurra goresten ditu maizenik. Pakea zaio gogoko, armen dirdai ta arrabotsak nardatu bait dute erabat. Artzai ta laborarien beharkizunak egin ditu bere. Oien auzi ta liskarrak erabakiko ditu guzien adiskide ta epaikari izanik.

Ezpeleta kantoiko juez bezala urtetan zaldi gainean joan oizan pakezko langintza ohoragarria betetzera. Ez zuen irabazten zaldia bazkatzeko diña ta adiskide esku-zabal batek «Ene» zerritzan zaldia utzi zion aundi ibili zedin. *Ene* ez zuen bere, Etxegarai'koa baizik. Zaldun eta zaldi an joan oi ziran goitik behetik.

Ehialarre ta Santa Katalina barne Ezpeletaruntz. Noiz nai geldituko ziran etxe-nagusi edo etxetiarrekin mintzatzeraz. Maizterren errenkurak entzungo zitun. Ez zen oro kexa izaten. Etxekoandre zabalek arno-sorta ala gazta ta zenberena eskeñiko zizkien, gereizi, sagar, mertxika ta udareak oraino ondu gabeak ziralarik. Eiztari zan Elizanburu ta maite zuen ontoketan ibiltzea. Ongi zekizkin Sara'ko bazter guziak eta eguraldi ederrez lorietan igaiten zen mendira egurastera. Donosti'ko Manterola jaunari egin gutu-nean Artxuri mendiko berri jakingarriak ematen dizkio.

Artzai bizitzarren goratzarrea *Artzaingoa* deritzen eglogan dago:

Ez naiz handietarik gizonen artean,
urrun, bakarrik nago mendien gainean,
artaldetto bat daukat han nere menean
harekin bizi bai naiz gostu ederrean

Tartean iritar alfer-naglari akar egingo die ziri-itz oiek sartuaz:

Ohapean hagoen hiritar nagia
nola ezagut dirok nik dudan zoria!

Eta beste ahapaldi biribiletan mendiaren ederra kantatzen jarraitzen du.

Artzaingoa ez ezen *Nere Etxea* edo *Laboraria* ez bestelako poema yaukalean goresmen hori erpiferañio jasotzen du. Gure basetxe, baserri, nekazari ta laborarieri eraikitako bertsoaldi entzute aundikoena auxe dugu. Aundiena ta Euskal-Erriari zabalduena. «Nere etxea» olerkiari lenen saria 1861 garren urtean eman zioten eta geroztik egin du bide. Gaztaroko lana dugula ezagun da, Guzia alai, baikor, txairo, arrosa kolore. Elizanburu'k eize-txanko batean asmatua omen, Emuldegi'ko muñoan, goiz batez —diotenez— erbiari aiduru zegola, zispa eskuan zuelarik, beste txindar bat jalki zitzaion irudimenera. Goi-txinda ortatik sortu zan «Nere etxea» eta egun batzuek geroago lenengo aldiz Leherenburu Gustave adiskide mami zuen eta Etxegaraia'ko nagusi zan supazterrean kanta marzal onen ahapaldi gozoak entzun ziran, Nork ez dakizki buruz?:

Ikusten duzu goizean
Argia asten denean
Menditto baten gainean.

Etxe ttipito aintzin xuri bat
Lau haitz handiren artean
Iturritto bat aldean
Zakur xuri bat atean
An bizi naiz ni bakean.

Beste zortzi ahapaldi geiago darraite zein baiño zein dotorego. Virjilio'k berak ez zituen ezesitzen. Etxea ausarki goretsiz geroz, emazte, alaba ta semearen aipamen maitetsua egiten dizkigu; ondoren, osasun eta ondasunen kondaketa dator. Auek aberats porrokatu batenak ez ba'dira. «aurea mediocritas» aski du zoriotsu billakatzeko.

Zer nahiko dut bertzerik!

Lana gorai patzea bidezkoa derizkiogu, laborari ta nekazari baten egipen nagusia neke eta lana izan bait dira, menderenmende. Lan eta jan! Jateari ere opa dio erran-merran pullita. Ez du naski egunero otoruntzik egiten. Gutiago mehe egunean, etxeoandre kristau zintzoak ez bait dio zingarrik jartzen eltzekarian...

Ez du mehe egunen
Sartuko ustegabe
Xingar ezur bat eltzean.

Bainan etxeko mandio, solairu ta ikullu aberez, tresnaz, bazka ta zituz beterik ikusirik aitortzen du

Ez gaitu hillen goseak!

Ikullu ta eiak ezin konta alako buruz ornituak daude: bei, ardi, aratze, ergi, zikiro, bildots, ahuntz, zerri eta abar. Orrenbeste jabetasunez arroturik aldarrikatzen du:

Nereak dira guziak!

Berea, orde, apalki, Goikoa'ri zor diola oro oroiturik, aitortzen du ordaiñez, ate-joka datozen beartsueri eman behar zaiela biotz zabal:

Ez dugu behar lurrean
aise bizirik etxean
utzi laguna gabe

Au da, karidadea lagun urkoarentzat, Jainko-legearen lenengo agindua.

Iru azken ahapaldiak familiaren maitasunari eskeñiak ditugu. Aita'k Piarres semea arras gogoko dizu; eta arego oraindik Katalin alaba amaren eite berbera duena. Lerde jariorik gabe ez romantizismoaren arabera bere emazte ta maitale duen Maria'ri, betiko Maria'ri itz zuur eta xume auek zuzentzen ditio:

Nere emazte Maria
ez da andre bat andia
bañan emazte garbia.

Itz gutxi ta ez samurregiak, baiñan agian etxeoandre bati opa dakizkioken egizkoenak. Amaitzeko etxearen goresmena egiten digu berriz. Bizi-leku izan duen etxearena! Bizi izan dan lekuan bertan iltzeko grazia Jainkoa'ri galdeturik.

Poema miresgarri au beste izkuntzetara itzulia izan da. Rodney Gallop angles euskaltzaleak bere liburuan (3) inglesera itzultzen du.

Kantu onen doñu ta neurriari buruz Errotarena jaunak, Musée Basque'ko aldizkarian (4) zentzuzko xehetasun batzuek burutu zituen Elizanburu'k erabilitako aideaz eta geroztik egin zaizkion aldaketaz.

Lehen doñua giar eta euskal kutsu geiagokoa zala, dio: bizi ta zaluagoa, dantza modukoa. Jendeak bein eta berritan kantatuaz beratu ta leundu zuen koral biurturik. Mde de Villehelo'k bere euskal kanta-sortan (5) hori bera aipatzen du dionean: «Les charmantes paroles». du «Laboureur Heureux», c'est un air instrumental».

Musika 2 x 4 neurrian ipiñia dago ta *la* tonu aundian. «Gure Herria» aldizkariak 1922 urtean emandako alda-aldian ere neurri ortan berean jarria dago baiño ez du berdina doñua. Gañera *sol* aundia deritzan tonu-maillan ipiñia abotsak errezago kanta dezaten. Musika neurria bikoa ta irukoa nasirik doaz, euskal eresian usu gerta oi danez. Doñua elheari erantsia duela dirudi, eta ez itzak doñuari.

Beste orrialdean eta Errotarena jaunaren aipatu lanetik artuta ikus zenezakete «Gure Etxea» ospetsua Elizanburu berak eskuz egindakoa. Autografo balioetsua beraz.

(3) The Book of the Basques London.

(4) Bulletin de Musée Basque de Bayonne 1941.

(5) Souvenir des Pyrénées, 1869.

Ez dira oso ugariak kapitain ohiak utzi zizkigun olerkiak; ogeiren bat doi-doia. Emankorrago ditugu poetak geienetan. Jorriegi ere bai sarritan. Eta Poesian obe bait da gutxi ta auta, ta ez ausarki ta zabar. Lan on bat aski izan da batzuetan idazle bat goraiatzeko. Adibidez: Jorge Manrique'ren illeta eresia. Orobat *Gure Etxea*, *MARIA Besta Biharamuna* edo *Solferino'ko itsua*, orietako edozeinek Elizanburu'ren aipua barrea lezake.

Eta Solferino'ko itsua poema ederra aipatu dugun ezkeror zerbait esan bear dugu seme galdu onetzaz. Sallaberry izeneko poeta batena zala uste izan bait zan luzaroan biak bat zirala ezagutzeka. Txapel batekin ezin estali, alabaiñan, bi buru eta azkenik agertu da aita bakarra gure olerkari saratarra duela.

1864 urtean saristatu zioten eta ao batez kritikiko ta irizlemirizle orok aitortu dute euskeraz egin dan ederrenatarik bat dala, ez ba'da garaiena. Ez dut emango iritzi bat besterik ta au gauzak onartzen latz eta zorrotz dan batena. Ona bada Orixe, gure idazle gallenak zer dion: «*Neurtitz-aldi zoragarria*» «*Artatik igarriko diozu poeta izenik merezi ote duen eta euskeraz zerbait barnerik eta samurrik adierazi ote diteken*» (6).

Ain da eder, apain eta unkigarri ez dakit zeintzu ahapaldi erakutsi. Guziaz ez aldatzekotan deus ez jartzea obe. Irakur zazute bada oso-osorik dagon lekuan.

Onela du asiera:

«Armen artzera deitu ninduen gazterik sorte etsaiak...»

Oraiz azterketa labur bat egingo dugu erri-maitasunak, sorterri zaletasunak eraginda burutu zituen lanez. Prantzia'ko gerrari izan zanez biotz-min aundia eman zion 1870'n Alemaniak zafratu zuanean.

Deadar estu bat atera arazten dio barne-barnetik: ¡BIBA FRANCIA!

Urte guti du, gau illun batez
lo zagolarik bere ohatzean
arrano bati lotu zirela
berrehun bele batean.

Arranoa Prantzestar Imperioa'ren irudia da eta olartu ta menderatu duten beleak prusitarrok dira.

Bentzutu zuten; ezin artiki
oinbertze etsai beltzen artean

(6) Euskal Literaturaren edesti laburra Euskal-Esnailea 1927.

hegal bat ere kendurik uts...
halare dabil airean.

Ez da oro goibel. Poetak ba-du itxaropen eta adore etorkizunari buruz:

Frantzes erria laister halare
goratuko da lehen bezala,
Umeeak amari bai ekarriko
belek ebatsi hegala.

Zirkunstanzi edo inguru-giroak erretako olerkiak dirala, esando du norbaitek. Bai naski! Goethe'ren iritzira —Ekermann'ekin izandako elkarrizketan— guziek omen dira zirkunstantzi olerkiak. Esan nai da: inguru-giroak arnas et indar ematen dienak. Ori bera dio Berne-Joffroy jaunak Valery poetari buruz:

«L'oeuvre de Valery est presque toute de circonstances. Quelques poèmes mis à part a été écrite sur commande». Elizanburu'k ere sariak irabastearren egin zituen zenbait bertsu-lan, baiñan bai barneak aginduta ere. Prantzes leial eta bonaparte-zale suhar agertu zaigu, ikusi duzutenez, gure kapitaina. Poesi muga goitarretan ordea, griña hori ongi elkartzen daki bere sorterriari zor dion maitasunarekin. Euskal-Erria, bere kondaira, asebele, tradizio ta oiturak ez ditu aantzen. Bizirik daude *Euskera ta Euskaldunak* deritzan neurtitzetan:

Mendi gainetik asten ba naiz
kanta hunen kantatzen.
Oihan zokotik oiartzuna
Zer dautak ihardesten?

Gure arbasoek eginiko «balentriak» aizatzen ditu ta zenbait sasi-jakintsuren aurka jeikiaz:

Euskaldun guzien anaitasuna ta denek-bat jartzea gutiziatzen digu poetak azken bertsoan:

Anai gaituk eskualdunak, orai ere oxala
jartzen ba'gira guziok bat, lenago bezala.

Ametz asegia! Gogo ta izpiritu ortaz beraz irazekia agertzen zaigu beste onoko oda *Euskalduna* deituan:

Eskualdun seme dena bedi alegera!
ikusten dut bet-betan, oi zein den ederra!

Pozkarioz dario gure Erria, arbol baten idurian kantaturik:
arbol bat arkaitzea jarria. Erroz, sendo, tinko, egundaino garaitu
gabea ta oh! poeta igarle ba'litz! sekula ihartuko ez dena!

Betor Karloman, betor Errolan, ez naiz aurtikia
Dugun ikus norena daiteken auzia.

Azkenean oiua ez ezen irrintzi bortitz batez dardarazten du
eguratsa:

Kanta berria dugun denek kanta gora!
Gora eskualdun arraza azkarra.
Biba mendi gainean eskualdun arbola!

Turutu soñua itzali dela ta oihuak entzun ondoren Poetari so
gingo diogu eguneroko gauza txikiak, arruntak erasten dizkigu-
la. Onela *Zapataina edo gizon zuhurra* neurtitzan. Zergatik
ez? Zapataria ere filosofoa diteke, zoriontsu bere Sorteaz, pozik
auzoaren bekaizkerik ez dualako. Aldarte oneko, munduko nai-
gabe mixeriak pairatzen (jasaiten) bait daki eta Eriotzaren bel-
durrik gabe. Marzial Erroma'ko iberitar poeta ospetsuak bere
epigrama batean egin zuen antzera. Gereztik Plantino Ambe-
res'ko primatzaileak eta beste anitzek artutako bidea. Gu-
re saratar zuhurrak onela dio:

Yakintsunen arabera nor berak du berea
Mundura gertu denean ekarria zortea.
Yainkoak egin bezala nik maite dut nereak
Nahiz ez den jenden ustez zorionez betea.

Lanak ez dio ikarik ematen gure zapatainari, naiz «argitik
illuneraño» jardun eta mailu, trukes, ezten eta gainerako tres-
nak artuaz, eskuak pikez zikindurik ditularik onu au ematen
digu:

Zoroak ez duenaren bethi du gutizia
atsekabeen bizi da nairik bertzen ongia

Gizon eredu orretzaz mintzatzen ari naizela gogora datorrit
garai artako saratar Augusto Etxeberry Schuchardt aleman ja-
kintsuaren euskera maisua izan zana. Nola nai den *Zapatain zu-
hurra* Elizanburu'k bere irakurgai arrai *PIARRES ADAME*'n
arras egoki kokatu zuen. An ikertuko dugu geroxeago nobelatxo
edo eleberrri hori ikuskatzen dugularik.

Orain beste lantxo bat *Infirmerian* deritzan naurtitzaren txanda da. Grazien Adema Zalduby adiskide mami zuenari opaldua dago, irritsu ta jostalari gaztetasun oroitzapenez:

Erran dugun bezala Grazien maitea
eritasun bat ba dut nik hainitz handia
mafrundi ta sukarra, bat eta bestea
deus handirik ez da baiñan gosetea!

Eritegian ez ongi dagon baten zorigaitz xelebrea digu kontatzen. Oñaze-miñak baiño gose ta jangaleak arduratzen dute gizarajoa. Ez bait du apetiturik gal! Gai ontaz gure kantategian badugu pizti ederrik! Nor ez da oroitzen *Petiri Sanz*, beste izenez *Txanton Piperr*i bertso parregarriaz? Eta *Mehetegi'ko zakurra* Xuriko'z ain zuzen Zalduby'k asmatutakoa? Eta esateko aitor bear dugu *Infirmerian* ez dala aien maillara irixten: ez duela ain izari goitarra ardiesten.

Beste orrenbeste esan diteke *Tan, Tan, Tan* kadira-dantza edo ardo kanta dalakoaz. Ez gaizki bapo jan-edan ondoren errepikatzeke!

Auek utzita obe dugu aipatu —baten bat berantesirik dago onuzkero— Elizanburu'ren «chef d'oeuvre», poema agian gallen eta osoena: *IRAGAN BESTA BIHARAMUNA* baita ere *Lau andren Besta* eta *Amets* bat deitua. Izen oriek guziez ikusi dut aren esku liburuan. Berebiziko lan bakar onengatik poeta saratarra euskal Parnasoko gallurrera igana dugu. Oar bestela bertsen biribiltasuna, solasen indarra, ipuilaren grazia, egipenaren gatza ta piperra. Guzia irakurritakoa, par karkara artean barne guzia poz-ikaraz atseginez aseu uzten digu. Geiago gabe ahapaldi batzuek ipintzea aski:

Iragan besta biharamonean
Berek dakiten xoko batean
lau andre, bat alarguna, iru mutxurdin, jarririk itzalean
harri xabal bat belhaunen gainean
hari ziren hari ziren trukean

Lau atso oien gertakizun anakreontiarrek parrez ler egin arazten gaitu. Nola ez truke jokuan ari diralarik laguntzat pitxarrarekin, xahattoa ta kuiattoa bait dituzte? Iru jaunak ongi hampatuak gainera! Irudimen eta mintzoz a zer nolako bizitasuna! Pil pil dago ipuia eta argiz beterik egoitza:

Zer othe duen nik jakin nahi
Pitxarrarekin bertze jaun hori.
Zorroa du biribila, moko meharra, ttente xutik egoki,
xahatto bat ote den nago ni
hanpatua, hanpatua ederki.

Azalpena ezin eta zeatzago egifia, josteta ez da gelditzen are
gutiago asetzen atsoen egarria. Arnoa dute atsa ta leloa:

Handik ximiko, hemendik irri
haurrak bezala jostetan hari,
artean kolpe bat hegalpean denari
amodiozko hitz bat erran gogo diote sarri
beharrira, beharrira khuari.

Amargarren ahapalditik aurrera bizitasun eta sukarra gain-
ditzen doaz. Zorrotz dabilta mingaiñak itz eta pitz! elkar ausi-
ki ta iraindu naiez. Ontziak jadanik odol-ustuak, buruak bero,
elheak sarkor eta zirikalari, giroa kiskalgarri gudurako gertu:

Bazakinagu tresna makurra
ez dunala hik atza laburra.
ez dun ez dion bezala horma xurgatuz biribildu muturra
ez eta naski gorritu sudurra
milikatuz, milikatuz elhurra.▶

Iragan besta biharamona oso-osorik koka bearko nuke emen
baiñan ez luzatzeagatik beste ahapaldi bakarra aldatuko dut.
Itz mingotz, gordin eta zorrotz geienik duena. Lore sorta leun eta
usaintsua begi-belarrien zurikatzeke eta biotzaren atseginerako.
Sardin - saltzailliek ez diote errez ao gaiztoz irabazten ahal
gure atso besta zaleeri:

Apho mutxurdin, moko bipila
zeren ondoan othe habila?
Hatz ba dun gibel aldean, ikusiko dun zenbat naizen habila
xuhur ba dun ago neska zirtzila
ixil, xil, ixil, ixil, ixila!

Zin-zifnez diot, ene ustez au aiñakorik ez dugula gure literatu-
ran. Erbat artuta neretzako txapelduna. Iritzi au bera beste
askori etzun diet.

Iñongo klassikoak ere ez dute obeto tajututako zatirik: gaiez,

izkeraz, goi-atsez eta erretorika legen arabera. Grazia guzien doaez ornitua doa *Besta biharamona*. Poliki poliki asieran, beti zartolari, azkenean ea sarraskian amaitzen dala. Sorgiñen akelarre itxura artzen du, Shakespeare berak itzalagoa asma ez zezakena.:

Beste bigarren egun berean,
lau gatu zaar anjelusean.
Bat maingu, irur saltoka, sorgiñak puyes! zoazila bidean
ikusi ditut nik amets batean
akelarre, akelarre gafiñean.

Beraz aitor dezagun ao batez bidezkoak dirala lan onengatik Elizanburu'ri egiten zaizkion laudorioak. Gauza bat bakarra zuritu bearra dago: norbaitek jarri dezakela zalantzan bertso-aldi hori ez ote zuen poeta saratarrak beste nunbeitik artu; antziñeko koplakari ez ezagun batena ez ote zanentz? Auzi hau literatura guzietan sortzen da: alegia; aitarik gabeko bertso zaharrak nork egiñak diran garbitzea.

Ez dakit *Besta Biharamona* noiz argitaratu zan lenengoz. Ez dut uste guzien ezpañetan, ondasun mostrenkoa zana. Naiz ala izanik ere, osotu, edertu ta borobildu zueena aitzatzat ezagutzen dugu. Azken ikutu ta orrazketak balio du, ta eman diona gelditzen da jabe ta nagusi. Bego saratarra bai! bai!

Elizanburu'ren ondarrak biltzera goaz orain. Aren azken lanak ikertu bear ditugu. Gure gizona zaarra izan gabe, makaldu-xea dabil, adin puska bat ba dizu. Eta okerreana dana alargun dago, andrea il bait zaio. Urteak anitz erakutsi diote, batik bat gizonen ergelkeriak ezagutzen. Biotza epeldu zaio, gaztetan izan zituen ametsen gibeletik ibiltzeko gogoa galduaz. Gizartean, bertatik-berta, urbil ikusi ditu justizi-eza ta mixeriak. Auek zuzen ditzaken politikaren aldekoa da. Kristau zintzoa da baiñan ez du maite apaizen nagusikeria elizatik kampo. Fededum baiñan baita ere zentzudun. Jainkoaren seme baiñan ez zenbait sasi-eliztarren politikaren mutil. Oriek izan ziran orduko burrukak eskuin-ezkertar edo zuri-gorri artean. Kapitain ohia demokrata ta errizale genuen eta ez zuen nai jende xehea aberats okitu ta jauntxo pean egon zadin. Asmo oriek iñarrosten ditu *Lehen eta Oraí* neurtitzean:

Izan nauk ipharrera ego aldetik
iguzkiko partera mendebaletik

Eta diat ikusi guzien gainetik
inozenzia hanitz gizonen partetik.
Abila argatik
duk egundainotik
egin gabe deusik
ederkiena bizi bertzen lanetik.

Zein urrun gauden «Nere etxea» gaztaroko ahapaldi bukoliko aietatik. An poetak laborari ta lugintzaren ederra goratzen du. Emen berriz, nekazariaren alde ari da, ori bai, bañan erabat errege ta aundi-maundien aurka jaikitzen ikusten dugu:

Ba uan bat errege guzien buruan,
haren inguruan
alferrak ituan
bizi deskantsuan.

1789'ko matxinadan irabazitako gizon-eskubidearen alde bere abotsa altxatzen du:

Soil ez dik ehun urte, lagun maiteak,
gizonaren errenkan gure jartzeak.
Lehen batzu nagusi, esklabo bertzeak,
Geroztik jendeak
Lerro berean gaitik jarri legeak.

Ez uste izan Elizanburu naaspilla zaleetakoa zanik. Ez buru-arro ta demagogo bat Chaho'ren antzeko. Bai zera! Gizon zuzen eta pakezale zala jakiteko asken bertsoak irakurtzea aski da, kristau maitasunez beteak:

Ala dadin aberats ala pobrea
gizona gizonaren duk aurridea.

elgar aditzea,
elgar maitatzea
eta laguntzea,
hori duk egiazko Jainko legea!

Poematxo hau Elizanburu il ta lau urtera, hau da 1896'an bere errepublikano lagunek, propagandatzat Pau'en argitaratu zuten Lewy d'Abartiague izen pean (7).

(7) Julien Vinson Essai d'une Biographie de la langue basque. II página 733.

Lehen eta Orai lan orrek politika alderdikieriaz at beste xehetasun bereziak ba-dizkitzu! Gai, neurri eta doñutik darienak. Koplakari aipatuenak erabillitako ber-berak ditugu. Esate baterako: Otxalde eta Etchaun'ek elkarren artean izandako gudu-
Gaztetasuna eta Zahartasuna galez izari hori artu zuten.

Baita ere Xenpelar'ek aire ta punta orretan eman zigun: *Nagusi ta Morroia* kanta aderra, *Lehen eta Orai* onekin zer ikusi aundia duena. Onela errederiarrak dion lekuan:

Nere nagusi jauna: etxeko berriak
dira ezin geiago negargarriak

saratarrak oin berean jardesten du:

Zinez zorigaitzeko denbora hetan
nolako mixeria zen bazterretan.

Gipuzkoarrak anai-arteko guduaren kalteak adierazten ari zaigu eun urteren buruan, zoritxarrez, geronek ezagutu ditugunak eta lapurtarrak berriz, nekazarien ondamena jauntxo pean azaltzen digun bitartean:

Sortzetik iltzeraifio laboraria
uztarri pean uan ire tokia.

Bi bertsulariek erri xehearen arimaz ongi jabetuak ziran eta bazekizkiten jende arruntaren biotzeko xede eta gutiziak: pakea, zuzena eta libertadea.

Elizunburu'k egindako itzneurtu ezagunenak arakatu ditugu. Utsune bat nabaituko litzake nere lantxo ontan ez ba-nu zer-bait aipatuko itz-laxoz, prosaz idatzi zuen «Piarres Adame» irakurgaiaz. «Zenbait hichtorio Lapurdiko eskuaraz» deritzana. Damurik lehen zatia besterik ez zuen amaitu, baiñan irritsu ta txanbeliña. Oleta'ko bestetara egin txangoa Piarres'ek eta beste mutiko batek. «Jakín zazu —digu Elizunburu'k—, irakurtzaille maitea, mutiko hura zela lerro auek emen iskribatzen dituen bera».

Gertakizun politikak dira bi laguneri bidean jazorikoak eta Piarres'ek mutikoari beste ipuiak kontatzen ditio, kantaturik gaiñera lehen esan dugun bezala "Gizonzu hurraren" itz-neurtuak.

Piarres Adame'ek oben bat balin ba'du laburregia izatea da. Itz-lauz ez digu utzi beste lan agiririk, Alabaiñan ezagutzen du-

gu eskutiz txukun bat Donostia'ko José Manterola «Euskal-Erria» aldizkariaren zuzendariari egifia. Emen doakizute ikus dezazuen «Paiarresko'eneko semeak nola ezagutu eta maite zituen Sara'ko mendi bazter eta ingurumai guziak.

Zer esan aundia genuke oraindik saratar poetatzaz. Gaurko jendeak beste euskal olerkarien artean zer mallan jarri ditekén jakin naiko lukete. Luze litzake galde horri zuzen erantzutea. Batik bat azken berrogeitamar urteetan burrundara ta eman gaitza izan bait da gure bertso-langintzan. Oiana loditu da ta urbillegi gaude zuaitz ondorei so egin eta banaka izenak ematen asteko. *Euskaldunak* poema larden, tantai, aberats eta joriaren inguru ta itzalean —errege bera bait dugu— beste lore usaintsu, guri ta margoz disdiragarri sortu dira gure Poesiaren eremu garbian.

XIX garren gizaldiko olerkarien artean bai ausartzen naiz esatera Elizanburu bikaiñena izan ote zan. Mourlane-Mitxelenak dio (8) garaitasun ori Prantzia'ko Lyceo'tik artua zuela, Larresoro'tik esan nai du, alegia. Ez da gezurra. Alabaññan. ikastetxe artan ikasitakoaz kampo, bere etorriaz ta, Elizanburu'k Sarako erriari asko zor zion; jaioterrian bildutako ondoreari.

Axular, Joanes d'Etxeberri, Harizmendi, Harostegi, Lahetjuzan Joannategi, Diturbide, Iturri eta beste zenbaitek lurra landua utzi zieten. Atsotitz zaar batek dio: «Saratarrak mintzari ederrak». Eta onela gure poeta ere mintzari eder, izkuntz eta solasez nasala, itz-neurtuak ozen eta egoki koblatzeko berezia.

Hiribarren'ek bertsuak josten ditu baiñan murriz. Ez ao-go-
zo, ze da biotzondorik. Etxahun, Otxalde, Dibarrart eta Xepelar bertsolari errikoi, zorrotz, eta bizkorrak dira, ez dute ordea Elizanburu'ren jakitatea. Lapurdi'n Adema-Zalduby bakarra da Elizanburu'rekin neurtu ditekena; eta Bidasoz onuntz Bilintx, Arrese-Beitia, Pedro Mari Otaño.

Saratarra alaz guziz osoena eta nere iritiz garaiena.

Elizanburu'ren aldiari *mugatiarren aldia* deituko nioke. Prantzesez «douanier» aroa edo. Izan ere orduko euskaltzale geienak muga inguruan bizi ziranetakoak bait ziran. Duvoisin kapitainetik asi ta Otxalde, Dasconaguerre, Fabre, Karrikaburu eta abar.

Bestela «bonaparte zaleen» aldia deitu genezake. Napoleon III garren buruzagitzan euskaltzaletasuna pizten asi zalako. Duvoisin'ek oda bat eskeñi zian Napoleon «txiki»-ri eta L. L. Bona-

(8) "La poesia vascongada en el siglo XIX". Primer Congreso E. V.

parte illoba ta prinziphea euskera sakon ikasi ta ikertzen asi zan ortako Euskal-Erria guzian ibilliaz eta bertan laguntzaleak arkiturik. Sasoi artan berean, D'Abbadie d'Arrast jakintsu ta eskuzabalak prima ta ariak ausarki eskeñi zituen, bere sakeletik, eta leia zan gure joku, oitura, dantza, izkuntza ta literaturaren alde. Hori aski ez dala Napoleon'en etxaldea udaran Biarritz'era etortzen asi zan. Ordu arte errixka bat zana errege ta jende aundi-mandien bizi-leku biurturik. Enperadore bikote altsua gure errialdetan ibilli ziran, iñoiz ere Sara'raño elduaz. Baita ere emendik Larrun mendiraño iritxi ziran Jaun-andre agurgarriak.

Eugenia andre emperatriza ain zan eder, lirain eta graziduna nunnaiko jendeak txunditurik uzten zituna. Larrungo mendi gallurrean aren egonaldia aantzi ez zedin piramide itxurezko arri luze bat zutik jarri zuten ta bertan itza auek koskatuak:

Higan de Eugenia
Larrun gaineraño
jakin behar berria
mendek dirauteno.

Imperio Bonaparterren bigarren buruzagitza arras aiputan zegon: «L'empire c'est la paix» zioten. Euskaldun aundiki bat izan zan Marquis d'Huart itz-neurtutan goratu zuena: «Ereñotz eta Aritza» deritza kantak eta luze litzake eta gogaitgarri —ainbeste bertso doaz!— emen ezartzea. Eugenia de Montijo española sortzez eta Prantzia'ko buruzagi andrea ezkontzaz euskotar jatorrikoa zan (Montalban-Urteaga) Gautegi etxe jabea.

Orregatik Gernika'ko batzar nagusiak ohore egin zion Eugenia'ri eta bere semeari 1856'ko Uztaillaren 17'an. Geroztik jau-regi osoa eraberritu zuen.

Ez zuten asko iraun maite-sarre eta omen oriek. Gudate ta matxinadak errege-erregiñen alki ta buruzagitza suntsitu zituzten, errialdeak bere kaza erbaildurik lagata etorkizunari buruz. Bizia ez da beti Poesi, ez errege, ez erri ez gizon bakoitzarentzat. Ezta, naski, ia azturik utzi dugun Elizanburu, rentzat.

Onak eragozpen eta ondasun-eza ezagutu zituen eta beste gainerako burrukak. Prantzia'k gerra galdu ondoren eta berriz Errepublika nagusi zala beste eztabaida ta liiskarrak politika barnean ezagutu zituen: Eliza ta Estadia berezi beharra, apaiz-zale ta laikotarren arteko eztabidak. Euskal-Erriraño ere eldu ziran erra txarrak piztuaz. Berriz ere piztu zan etsaigoa erritarren artean, batzuek «xuri», besteek «gorri» izanik. Gure poeta, esan

gabe doa, «gorrixka» ginduela. Bere adiskideekin «Serorainea» edo Istillarr'eko Etxeberrin'n» bilkurak egiten zituzten. «Behitlar» bait ziran.

«Xuriek» aldiz Diharasarry sutsua buru zutela goi aldean plaza inguruan zuten biltzar lekua.

Gauza bitxia da jakitea aldi artan Sara'n *Gorriak* zirala nagusi: Senpere'n, ordez, zuriak agintari. 1789 ta ondorengo urte latzetan senpertarrak «matxinadazale» purrukatuak agertu ziran, saratarrak aitzitik Errelijioaren begiratzalle zintzoak, Larralde'ko Madalen neskatxa zutela aintzindari... Errelijio kariaz ezik, kontrebando zerbait tartean ba-zala esaten dutenak ba-dira. Ez zagun espantu larririk atera! Erri biak auzokide, fededun eta euskaldun adiskidetu ziran. Politika-k berezi zuena biziak elkartzen joan da urteen buruan.

Elizanburu egun aietan ezagutu zuen andre batek esanda dakit azken urtetan itxura onekoa zagoala, gorputzez mehe, arrai eta begitarte legunekoa (Eizagirre J. jauna, nere adiskide maite ta ertilariaren irudian dagon gisakoa). Makila zeraman eskuan —sariketetan maiz irabazi zuen zillar-kirtendun ajetakobat, Sara'ko patarrak goiti-beiti kurritzeko beharrezko laguntzallea. Ez zan zaharra oraino 1891 garren urtean Abenduaren 31'n il zala, plazako Leku-ederrea etxean 63 urte zituelarik.

Azken unean Adema-Zalduby aspaldiko adiskidea alboan zuen eta elizako sakramentuak eman zizkion, Biek Larresoro'ko gaztaro urteetan bezala elkarrekin bildu ziran. Eta Grazien kallonjeak lagundu zuen ondo iltzen Jan Battitat Piarresenekoa.

Elizanburu'ren eriotzak dolumen aundiaz bete zuen erri guzia, etxeko ta adiskideak nigarrez utzirik.

Laudorio ta goresmenak agertu ziran alde guzietatik. udaberri-z, loreak antzo. Damurik, ez zan ain biotz-zabal agertu aste-kari «xurietako» bat, bada maxiaketa murrizta egotzi zion (9).

Andik urte gutxitara «La Tradition Basque» 1897 garrenean Donibane Lohntzun'en ospatu batzar nagusia, Sara'ño ere eldu zan bertako Erri-Etxe sarrera gainean eta Leherenburu Gustavo jauna auzapez zala arri-lau batean opari-itza auek agertu zituzten:

Elissanburu neurt-hitzlariari
Euskaldun Batzarraren
Oroitzapena
Buruillaren 13-1897

(9) "La Semaine". Bayonne 3 Janvier 1892.

Nekroloji arras amultsua R. Wentworth Webster angles elizgizonak opa ziona izan zan (10).

Webster jaun au Sara'n bizi izan zan 25 urte buruan. Oso adiskide zuen Elizanburu'k eta orobat bear dugu izan euskaldun guziek. Aski zaigu aren «Loisir d'un etranger au Pays Basque» liburua irakurtzea.

Bi lagunek maiz ziarduten Sara'ko euskera zala-ta gainerako euskal auziaz. Webster'ek D. Karmelo Etxegarai jaunari egin eskutitz batean, alpatzen dio zer nolako solas luzeak egiten zituen Elizanburu'rekin; eta onek oararazi zizkiola Sara'ko euskerak bere gazte denboratik onuntz jasandako aldaketaz, bai itz eta esaeretan.

Webster *Bexania* deritzen «Lehen-Bizkai» auzoko etxean bititu zan urte batzuetan. Eta gero plazara aldatu zan «Bista-Eder» etxera, bertan jarraiturik il artio.

Saratarrek Webster jauna biziki maite zuten naiz apez protestantea izan, gizon zuzen eta ona zalako. Batik bat *lehen-bizkaitarren* beretzat zeukaten et ez saltzeko! *Zakolin-Zankar* bertsolari arloteak letari-kantan onela zion:

Angles ederra Bexieneko!

Webster'en oroitzapena Sara'n ez dedin ahantzi *Bexiane* etxean Eusko-Ikaskuntzak urtean arri landu eder bat ipifii arazi zuen.

Aspaldidanik Elizunburu'ren liburutto batean bildu bear lirakela anitzek eskatu dute te neronek askori entzundako galdeada.

Sara'n zortzi urtez bizi izanik ausarki izan nuen astia. Ene oporraldi luzean Olerkariaren urratsen gibeletik ibillia nauzu. Aren zantzuak usnatu ditut zuri eskeintzarren. Nere nekea gogo onez artzen ba-dezu, irakurle, ez dut nai beste ordainik. Utsegitean erori ba-naiz nere asmoaren zuz na bekit bankakizun.

Ez dut inor iraindu nai izan; eta are gutxiago aspertu.

Au dala-ta irri-ipuin batez guzieri agur egin gogo diet ibilkunde oni amaiera emanetz (11).

Ba-dakizute, naski, Sara'n ez dala geiago Elizanburutarrik. Poetak ukan zuen seme bakarra, botikarioa bera, Farmazia dandendatxoa Saran zabaldu zuen lenbizikoz; eta gero Bayona'ra al-

(10) "Euskal-Erria". Donostia 1892.

(11) Supazter askotan berotu nintzan eta beste anitzetan izan maikide.

datu zan. Arkupetan neronek izena ikusia dut; Elizanburu botikario euskalduna. Ez da dudarik Sara'n baiño bezero ta irabazi geiago zituela.

Saratar zenbaitek ez zuten hori sinetsi nahi. Elizanburu botikarioa Sara-tik Matxin sempertar bertsulariak kazatu omen. Aizatu? Nola ordea?...

Urte berri egun batez Mattin eta gazte multso bat arratsapalean errondan zabiltzan. Oitura danez etxez-etxe eskean: *Zingarra edo arraultze; bat edo bertze. Biek orobat!*

«Botikarioanean ez zien fitsik eman eta bertsulariak gaiztoz ziri zorrotz au jaurti zien:

«Agur botikario,
saltzen duk erremedio
Tzar eta kario,
Amaika il duk Sara'n
I aizela medio...»

Biharamunean Elizanburu Bayona'ra joan omen zan eta damurik ez ta geroztik itzuli. Sempertar bertsulari batek saratar koblakari aundiaren semea uxarazi alajafia. Eskergabekeri deitoragarri ta beltza.

Elizanburu'ren olerkien izen-lerroa

I	«Gazte hiltzera dohana».	XIV	«Biba Frantzia».
II	«Xori berrikeraria».	XV	«Lau Andren Besta».
III	«Aingeru bati».	XVI	«Emazte edalea».
IV	«Maite Zaitut».	XVII	«Oraiko neskatxa batzu».
V	«Apexa ta Lorea».	XVIII	«Tan, tan, ratan».
VI	«Maria».	XIX	«Dantzaria».
VII	«Artzaingoa».	XX	«Zapatain edo Gizon zuhurra».
VIII	«Nere etxea».	XXI	«Eritegian».
IX	«Laboraria».	XXII	«Xori kaiolatik ihesi goan dena».
X	«Agur Herriari».	XXIII	«Lehen eta Orai».
XI	«Solferino'ko Itsua».		
XII	«Arbasoak».		
XIII	«Eskualduna».		

A. Onaindia'ren (12) liburu jorian irakurri artio ezagutzen ez nuen, Elizanburu'ren beste pitxi bikain bat **XORI KAIOLATIK IHES GOAN DENA** deritzana dugu. **XORIÑO A KAIOLAN** zuberotar erri-kanta zoragarria nork ez du entzun? Eta Nor ez da liluratu kampoa desiratzen zun xorifioen txirilululi mingotzak adi-turik.

Libertadia zeifien eder den! Elizanburu'k ordea beste txori bat agertzen digu abeslari: "**KAIOLATIK IHES GOAN DENA**" Eta damuturik, katibu zegon zorion-orduz oroitzen dena:

Kaiolan nintzenean maiz nindagon trixte
Kanpoan lagunetan bai nuen siniste.
Librotasuna ona zela, nuen uste
orai arte
Amets! amets zoroa! hik egin nauk kalte.

* * *

Eta orrela jarraitzen du bertsu ederretan egi hori guri erakutsiaz. Gure saratarra poeta aunditzat jotzen ba dugu, aitor bear dugu baita ere auzi —epaikari izan zen aldetik giza— bihotza sakonki ezagutzen zula ta txorilumaz, poesiz estaltzen jakin zuela.

Orobat herri izan da neretzat «**EMAZTE EDALEA**» zurrutari emanak diran andreami Elizanburu'k egozten dien bertsoaldi zorrotza:

Mazte edalea da igingarri
dabillan urhatzetan hain irrigarri
Zokoz-zoko batetik bertzera
sar eta atera.
Sabeletik ez otza doa etxera.

* * *

Gizonezkoentzat oitura itsusia ba'da areago ematzekientzat. Onela da. Beaarrik antzi ditu emen «**Erriko** besta biharamonean» erabillitako irri ta jolasak. Eta gure poeta «moralista» ta predikari sartuz geroz ez da gelditzen neskatxari ere zirikatu gabe. "**ORAIKO NESKATXA BATZU**" deritzan puska bipillean ederrak erraten dizkie .Orduko neskatxak| alako ba'ziran, zer ote lioke

(12) A. S. Onaindia. Milla-euskal Olerki eder. 1954.

Elizanburu'k egungoaz?... "*LABORARIA*" izen dula ba-dizu beste kanta bat. Gure nekazaria beti begiko zitzaion. Eta naiz ortan ez igo lenago gai berean iritxitako goi-maillara bere bihotzaren gutizia gertzen digu.

Berriro kontuak eginda, ezagunak ditugun Elizanburu'ren olerkiak ogeitairu ba'dira gutxienez eta oraindik norbaitek azalduko ditu bazterrean utzi ditugun bat edo beste.



Naas Maas

ANTON CHEJOV.—Orain berriki argitaratu dira New York-en kontu egille aundi horren eskutitzak edo gutunak. *Lillian Hellman*-ek egiten digu zerbitzu aundi bat Rusia-ko izkiriartzaille ospagarria maite dugun guztieri; eskutitz horien bitartez barnatzen aal ditugulakotz gizonaren xoko-mokoak eta minberatasunak; eta izpiritu bizi haren alde on eta alde gaitzak, azken hok bereziki.

Ezen *Chejov* karta horietan mintzo da ahoan bilorik gabe, esaten oi den bezala. Bere eritasunak kondatzen ditu orratzetik arira, dohakabeak asko jasan bear izan bai zuen; birieri-duna gazte danik, 44 urteekin hil zen. Pairatu bear izan zituen giza gaixoak, biotzaren dardarikak eta utsaldiak, pikoak, eta oraiño ere beste gaitz batzu.

Oraiño gazte zeno, 1880 garren urtean, bere familia osoa azten omen zuen bere lumari esker: aita merkataria erre kara joana bere saltegiakin. Bere anaiak alferkerian, dirua, Anton-en dirua, xautzen bestaz besta Mosku-n; eta bera ere ez prestuegi. Ala dio karta batean; "*mozkor nindagon goizetik arratsera sasoi hartan, eta botillak iduritzen zitzaizkidan neskatxak, eta neskatxak berriz bombillak*".

Ogei eta amar urte bete gabe 400 kontu baiño geiago zeuzkan izkiriatuak, sail hunetan lenengoetako mailla garaiturik, kritiko guztien aburuz. Kontuz kampo ere franko idatzi zuen. "*Marloia*" deitu komedia leendabiziko aldian eman zelarik Mosku-ko Teatro batean, zitzuka artua izan zen (1). "*Osaba Vania*" eta "*Iru aizpak*" ere oso komedia aipatuak ditu.

Sendakina izan zen, beste idazlari andi batzu bezala, eta naiz medikuntza bazterrera utzia, trebetasun eta oldar gorenekoakin

(1) Egun oketan emana izan da Parisen "*Marloia*" (La Gaviota) izeneko komedia hau bera, L'ATELIER teatro ospetsuan, eta kritikoek aro aundia atera dute, gorensten dutela zeruetaraiño, bai Chejov-en aisetasun liduragarria, eta bai ere André Barsacq komedia-emaille minbera, eta jostalarien oi ez bezalako gaitasuna.

aritu zen Cólera elderi bat piztu zenean. Beretako, idazlari artista izateko, (jeinu-koa esan nai dugu), naigabeetan eta gabezian bizi bear, "ostra amorratu" batean bilakatzeko (nonbait perla sorarazteko, adiarazi naiko du iduripen horrekin).

"Eta ezin da bein ere egiazko poeta izatera elduko dio Chejov-ek, ez paldin badu nunbait xede bat burutu gabea, edo itxaropen bat ametsetan, edo ez pada zerbaiten beldur edo lotsa". Uste dugu ezteia egiatik arras urrun.

Bere aldiko idazkideak «ez arto ez irin» ziren beretzat. Hiltzera zohanean eri andi, Tolstoi joaten omen zitzaion ikustera, eta hunen gogarakizun eta filosofiakin nardatzen bide zen gure gizona; eta ala zion, "Beste inor baiño geiago maite dut Tolstoi, baiñan ezin ditut jasan haren filosofiak; futitzen naiz *philosophia guztiendako*": politika ere gutiesten zuen.

Hiltzeko garaian sendakifiak, ezin ematuz biotzaren dardarikak, esan omen zion: "Ar zazu *Champaña ardoa*". Chejov-ek orduan: "Aspaldi du ez detala ardo hortatik edan"; baiñan bereala hil zen, jastatu ere gabe.

* * *

URKIJO MINTEGIAN.—Maiatzeko azken osteguneko solasaldia Zugasti jaunak egin zuen, kanta eta olerkieri buruz. Lirikoetan eta bereziki amodiozkoetan zorrozki autaturikako kanta zaar xarmagarri batzu eman zituen, tarteka oharmen eta azalpen argiak eginez.

* * *

GIUSEPPE UNGARETTI.—Berriki egona da Barcelonan itzaldi batzu ematen italiar olerkari poeta goren hau. Lirikan dudarik gabe agertzen da Italiako poeta aundienetakorik bat, bere "Vita d'un uomo" deritzaion izkiribuekin. Gizatasuna eta biotza erakusten du barnadanik *Alessandria*-ko izkiribatzaillak, *D'Annunzio* ampuruts eta likits harek ez bezala. Bere obra larrienak *Allegria*, *Sentimento del Tempo*, eta *Dolore*, dira. Aldizkaria untan berean damagu, beste tokian, *Allegria* deritzaionaren zatifo bat Etxaniz jaunak euskera-ratutik, gure olerkariak dakien bezala.

Egun oketan ikusten al da Donostian, *Ungaretti*-ren iduri bat. Bonichi-k egina, Erriqo etxeko aretoetan zabalik dagoen Italiar Pintura Erakusketan.

* * *

KANTARIEN EGUNA LIGI-N.—Maiatzaren 15 garrenean ospatu dute Zibero-ko erri xarmagarri horretan, euskal kantarien Norgeiagoka eta bilkura bat, arrakasta borobilla erdietsirik. Lau gisatara iuzkatu izan dira kantariak. I. zeñiek kanta geiago jakin. II. zeñiek kanta ederrago. III. zeñiek doñua politago. eta IV. garrenik; zeñiek obeki abestu eta kanta.

Multxo polita agertu zen eta andereak ere ez gutti. Denek ba dakigu xuberotar direla gure kanta unkigarrienak eta Xibero-ko ere, gure kantari izpiritu-tsuenak. Esku zarta jotzen diegu biotzetik gure anai maiteeri; ezen uste dugu kapitulu hori dela, gure izkuntza pizkunde umil hunetan, baitaezpadakoa.

Orfeoiek eta Kantari-bazkun eskolatuek kilika guti egiten digute, euskara piztu naiez gabiltzanei. Bakarka edo binaka gure kantak agertzea eta erakustea berriz, bide egokia zaigu, gure doñu eztiak berpizteko eta ikas-arazteko. **Biba Xibero!**

* * *

CONCHA ESPINA.—Novela egille ospe andiko hau hil da berriki Madriden. Sortua zen Santander-eko Mazcuerras errixkan, eta bere liburu askoren artean "*La esfinge maragata*" eta "*La niña de Luzmela*" aipatuko ditugu. Bere azken izkiribuan, hil baiño egun gutti leenago idatzirik, aipatzen du euskera; "...*el duro y milenario vascuence, progenitor como el Sánscrito del castellanizado latín*", *iniciaciones que tuvieron su sede en "San Millán de la Cogolla, allá por los andurriales del XII..."*

* * *

LIBURU ERAKUSKETA MADRIDEN.—Orai dembora gutti hiri horretan idikitako Erakusketan catalandarrek azaldu dituzten liburuek aipamen berezi bat merezi dute. Ugari izan dira, baliotsu eta azal ederretan emanak. Aro aundia izan dute eta denek ao batez diote laudorio bero bat irabazi dutela catalanek, erakusten duten oldarra, izpirituaren ernetasun eta trebetasunarengatik.

* * *

WILLIAM FAULKNER.—Ezagun duzue bear bada "*Sartoris*" dituaren, Ipar America-ko novela egille ospetsua. Nekazari bat dela maite du esatea, nekazari letradun eta izkiribu zalea. Orai bere izkiribueri esker aberastu da; eta badirudi urriki dela abe-

rasturik. Bere leeneko bizitza xehe ta lañoaren oroitza pen ezti-
mina ala zaiola dirudi. "Arlote ibiltaria izateko sortua nai—dio—
"Deus ez nuelarik zorioneko nintzen. Gabardin bat bakarra nuen,
"bi sakel andi-duna; Eta sakeletan eramaten nituen, oski pare
"bat, Shakespeare-n liburua bat eta Whisky botilla bat. Dohatsu
"nintzen orduan, neukana-z besterik ez nuen gutiziatzen, eta bu-
"ruausterik ez nuen ezagutzen".

* * *

EUSKALTZAINDIA.—Joan den maiatzean Arantzazu-n egin
zuten bere biltzarrea Euskal-Akademia-ko jaunek, hango
pralle maiteen gomit. Ongi bestatuak izan ziran euskaltzain jau-
nak komentu zaar hartan eta hango ikusbegi xarmagarriak go-
zatuz, udaberriko egun iguzkitsu eder bateri esker, joaileak lo-
riaturik etxeratu ziran.

Bistan da ikuskatu zutela han eraikitzen ari diren eliza be-
rri nasaia, orainko moda berrira altxatua, naiz ez duten asi oraino
atari-buruan eta barrenean kokatu bearrak direan eskulturak
eta pinturak; aro franko ateratu zen egun batez, iduri horiek
berritsi-egi zirela edo etzirela, baiña gu ez gara auzi horretan
sartuko; Eliza ama sainduak badu aski irakasle! Oturuntz baten
ondoko, bersolari xaar batek alaitu zuen bazkalondoa; Graxiano
ezagunak bota omen zuen bertso parrasta bat ederra, zirikatuz
aberatsak eta emakumeak, mutikoak eta neskatillak, pralleak
ere barkatu gabe. Agure adimendutsua eta zorrotza oñatiar ho-
ri. Mingaiña ausarta du, burua ez uts eta gatza ere ez eskas.

Gure bersolariak autak dira asto xuriarenak eta beltzarenak
edozeineri aorpegira kampakten, baiñan bati laidorik gabe; ausar-
tak, baiño zitalkeririk gabe. Ara emen bere bersoetarik batzu:

I

Beartsuak gabiltza
nekez eta miñez
munduko alfer danak
loditu ezifñez

II

alferrikan saiatu
geure alegifñez

alferkeriak oso
egin digu gaiñez.

PEÑAFLORIDA-KONDE ZENA.—Ez da aaztu gure adiskide maitearen oroitzapena, eta ez dugu aldi luzean aantziko gure laguntzale jarraikia izan zena, euskal gai oketan gabiltzanek. Ilbeltzean eman arazi zuten meza bat Azkoitian, Vascongada-koek, Mendizabal jaunaren arimaren faboretan. Koka-aala jendez mukuru betea zagon Eliza, eta azkeneko herri osoak kantatu zuen *Aita Gurea*; antzifneko beste konde, Peñaflorida Munibe harek idatziriko *Aita Gure* bera. Biotz unki garri benetan mement hura!

Joan den maiatzean berriz Jaizkibel mendiko gallur batean, finkatua izan zen Joakin Mendizabal jaun beraren oroitzapen-tan iru metroko arri andi, monolitho bat, haren izenekin; Gipuzkoa-ko agintari nagusiak eta jende oste aundia bildurik. Arriaren azpian ehortziak gelditu ziren, usaia den bezala, etorkizune-koentzat lekuko bezala ditezkenak, izkiribu eta lan tresna zen-bait.

* * *

BOISSEL KOMANDANTA.—Baionako *Musé basque* deritzaio-naren eragille eta buruzagi ainbeste urteetan izan den jaun euskaltzale ezagun hau hil zaigu Gayon-en, joan den maiatzean, lauetanogei eta geiago urtekin.

Erakustegi eder hori ikusi duenak taxutu dezake noraraiño-koak ziren gure adiskide maitearen jakituria eta euskal atxikimen-dua, bera euskaldun ez izanik gaiñera; Bordelekoa baizen sor-tzez. Euskaldunak zordun gaude jaun horrekin eta gure herriak galdu du adiskide bioztun bat.

* * *

IRUNE-KO EUSKAR-IKASLEAK.—Joan den Maiatzeko igande batez Leire-ko mendietara abiatuak genituen eguna iragaiteko Na-farroa-ko Aaldundegiko euskal Eskolara doazin gazteak, bere irak-sle Tirapu eta Ulzurrun jaunekin; eta aietan emaztekiak gi-zonkiak baiño geiago. Lerro auek irakurtzen ba lute jakin de-zatela asko pozten gareala berri horrekin eta opa eta desiratzen diegula biotza eta iraupena.

* * *

EL BIDASOA.—Trungo astekari begiko hunetan artikulo polli-tak argitaratzen dira duela zenbait dembora, euskaraz eta eus-keraz, Mas eta Ayalde jaunarenak bereziki. Naiz ez gauden beti akort adiskide horiek ematen dituzten arrazoiekin, beti atse-gin zaizkigu paper horretan erakusten diren aizutasun eta li-bertadia, batzuen eta besteen iritzeak argitara ateratzeko; eus-keraz izkiriatzeko tankeraz eta graphiaz alegia.

Mas jaunak esaten zuen bein erderatiko itzek, neurriz, abe-rasten dutela euskerea, eta hoieri esker elkar ulertzen dutela euskera desberdineko direnek. Eta kalte dela euskeraren bata-sunerako horiek errotik ekentzea. Beste aldi batean jaun berak esaten zien euskaldun arronteei, izkiria dezaten kartak bere mintzaireran, eta dakiten graphiak. Gure artean nekez uler-tzen da, damuz, (diogu guk) obe dela euskara erdaratiko graphia-kin, baterez baiño; Aut Caesar aut nihil.

Eztugu, aitzitik, uste *-k-* eta *tt-* letren orde *-q-* eta *-th-* usatze soillarekin geure euskaldunek artuko duten irakurtzeko errez tasunik. Berdin bitxi egiten zaie *-q-* ala *-k-*, euskaraz den ber, fal-ta bai zaie ttipi danik euskara irakurtzeko oiturea.

* * *

LES CLES DE ST. PIERRE.—Izen hunekin (*Jaundone Petri-n giltzak*) agertu da Frantzian liburu bat Peyrefitte idazlari eza-gunak izkiriaturik. Leenago danik ere ezaguna zen jaun hori, aro andia izan zuten *Ambassades* eta *Les amitiés particulières* deitu idaztiengatik.

Liburu edo novela berri hunetan berriz iduri makurrak zu-zendu naiez laidostatzen ditu Erromako gauza eta persona sa-kratuenak eta eskandal ozen bat eraiki du Europa erdian, eta bistan da geure Elizako agintariek gaitz-etsirik dagoela liburu kaltegarri hori.

Apat-Elxebarne

Jan-edanak

Aspaldi ontan lurbira guzian *menu* prantses-itzez ezagutzen diran jaki-errenkadak autu ditugu gure gaurko lantxoaren gaitzat.

Edouard Nignon'ek «Les Plaisirs de la Table»-n dio: "*Le menu*. Après de multiples recherches dans les archives culinaires, je n'ai rien trouvé qui indique son origine...» Ta gaineratzen du: «Placé en face de chaque convive, il permet a chacun de faire son choix et de réserver quelque peu son appétit pour les mets qu'il apprécie».

Esan izan oi da, Brunswick'o Enrike Dukea'k, 1849'garren urtean Ratisbona'n eman zuan bazkari batean lenbizi erabilli zuala. Ta, diotenez, maikide batek ea zer zan idazki ura galdegin zuanean: «Aurkeztuko dizkiguten jaki ta edari guzien errenkada», erantzun omen zuan Dukea'k.

Baña, izen onekin edo arekin, eta sukalderako edo maierako eratua, jaki ta edari-errenkada antolatzeko oitura, askozaz zarragoa dala inholaz ere, derizkiogu.

Adibidez, Martinez Montañó'k «Arte de Cocina»-n (1628) badakarzki errenkada auetako batzuk. Eta ez nolanaikoak, gañera. Eguberrietako egokia bezala azaltzen duan batean, ia berrogei jaki berezi ezartzen dira: urdaiazpikoa, ollandak eta usakumeak, eperrak eta atea, kapoiak eta indiolloak, erbiak, amorraia, bixiguak eta abar.

Arestian aitatutako Brunswick'o Dukea'ren menu ura, larruzkoa izan bear zuan noski. Baña, gerozkoan, paperezkoak eta

batez ere kartoi me ta leunezkoak erabiltzen dira eskuarkiro, jakifia danez. Ta, Frantzia'n berariaz, apaingarri dotorez edertuak.

Bein batez —diotenez—, Makay ipar-amerikatar aberatsak, Paris'en 1877'garren urtean bere lagunei eskaiñi zien oturuntz aundi batean, zillarrezko menu-orri lodi ta landutako bana eman omen zien, doarik, maikide guzlei...

Gañoitzean, menu bat gertutzerakoan, egoki izango litza-kela uste degu, Brillat Savarin'en ongiesan ontaz gogoratzea: «L'ordre de comestibles est de plus substantiels aux plus ligers». Paul Reboux'ek «Plats nouveaux!» deritzan liburu zoragarrian dakarzkin beste itz zeatz batzuetaz ere, bai noski: «La valeur d'un menu n'est pas une affaire de qualité. C'est une affaire de choix».

Ez daukagu esan bearrik noski, maikiñabat menu nabarmen antolatu dirala bai antziñan eta bai gure egunetan ere.

Ona orietako bat. 1870'garren urtean, prantses-alemanen arteko garratean, Paris'ko jatetxe batean maneatu zuten bazkari garesti batena da.

«Pain de siége. Potage: bouillon de cheval. Côtelletes de chien aux champignons, Civet de chat à la parisienne. Ane a la sauce Lyonnaise. Terrine de souris et de rats à la chinois. Filet de mulet à la portugaise. Rôti d'autruche. Petits pois à l'allemande. Pommes de terre à la maître d'hotel. Salade de mâches et celeris. Plum puding».

Menu-gai oni buruz, eta euskaldunei ta Euskalerrriari dago-kienez, ez gelegi baña, zertxobait beñepein idatzi da.

Ezaguna da, esate baterako, arabar Becerro de Bengoa gizon adituak, Madrid'ko «Almanaque de Conferencias Culinarias»-en, eta «Apalurreandiak con ardaurgozatza» idazpuruz, 1892'garren urtean argitaratu zuan «xelebrekeriz» eta... ortografi-utsegitez jositako lantxo bat.

Alda dezagun oso-osorik.

«En la gastronomía vascongada, que cuenta con tan buenas cocineras y con tan sabrosos tragadores, son las merendonas, las meriendas cenas, verdaderas solemnidades para los bienaventurados cuya preocupación en la vida se reduce a la de: «comment l'on dine». *Apalurreandiak* es la gran merienda euskara y se compone de las siguientes minucias: aperitivos o entremeses: *andiabizilla*, salchichón; *maginchetac*, quisquillas; *ceceña*, cecina, y *percebiac*, percebes. Platos de ordenanza: *andoilla-zopa*, sopa de chorizos, *bacallaoa*, bacalao a la vizcaina, *okeletac*, chuletas; *chipiroiak*, calamares; *errejatiak*, asados. Nada de Valde-

peñas, ni de Burdeos, Chateau Iquem, Laroze ni Clos Saint Urbain, sino de interminables sorbos de *ardaurgozatza*.

Los pocos clásicos en la lengua del país del *amarretaco*, llaman también a esa bebida *limoyadá*, y también *limoya-ezer-baga*, cuya sencillísima confección es esta.

Veinticuatro horas antes de la función se ponen a macerar, en agua, cortezas de limón; se añade una tercera parte de vino blanco y tinto por partes iguales; se azucara bien y se enfría o hiela en total en una garrafa improvisada, que todo buen *guisatzalkea*, *japrestatzalkea*, *ostalaria*, *landecharia*, *erberatzailea* o *edalea*, cocinero, figonero, ventero, gastrónomo o bebedor, saben disponer en el caserío más apartado de Vizcaya, con una herrada o cubo, un caldero y una arroba de nieve. Aquellos *guizonak* o aldeanos, de camisa gorda, boina, pipa, atarres y pantalón «de bargueta», ocultan muy buenos potistas:

"Eztarria chiqui, balitzaque edale andi"

Esta limonada perpetua, desde la sopa al último postre, entona mucho mejor los estómagos que el sorbete *au Kumel*, y que el *foie gras de Colmar*, *servi sur un bloc de glace éclairé*, y es mucho menos empalagoso y embriagador que la *macedoine de fraises*, *raisins*, *amandes*, *pêches*, *cassis*, etc., que, con *une pelletée de neige*, *au sorbet au Kirsh*, se empieza a servir ahora en las mesas del gran mundo, después de los *petit pois á l'anglaise* o del *jambon d'York a la Pompadour* o de los *homard á la royale*.

Los vascongados legítimos no toman después de la merienda, café ni champagne, ni ron ni ningún otro producto del moderno y maldito liberalismo. Se continúa apurando la *ardaurgozatza*, hasta que no quede ni una *ondarra* en el cubo ni una persona en la mesa.

¡Agur, benévolo lector, *ongi eidaquiala, eta prochu on deguizula!* ¡Dios te guarde, y que aproveche!»

Orobat, ezagun-samarra da, orain irurogeita host-bat urte, Madrid'eko egunkari batean agertu zan udara artan, Lekeitio'n, «periodista» batzuei eman zioten bazkariaren euskeraz idatzitako jaki-errenkada bat ere. Ona bertan:

Jatecua

Carramarruak
Chapiroyak bere salsan

Perloyak
Atuna Guiputza
Limonadia

Angel Muro'k onela biurtu zuan gaztelera menu au: «Cangrejos de mar, calamares o gibiones, *perloyak*, un pescado parecido a la berrugueta, si no me engaño; atún, y luego, limonada, y después... alinearse para reventar».

Bada beste euskal-menu bat ere, *Post-Thebussem*'ek barreatuta orain urte batzuk ia lurbira guziaz bira emandakoa. Buenos Aires'ko ain ezagun dan «Laurac-bat»-eko lagunak, 1891'garren urtean, eta Elkartek-sortueraren amalaugarren urteurrena ospatzearen, egin zuten bazkariarena.

LAURAC BAT

Amalaugarren urtean

Viva gu ta gu'arrak!

Jainkoak eman deizula osasuna eta bearbada ondasuna

Lagun jana

Zopa

Otarrai-salda Indiagariaz.—Ardo-gorria.

Sarrerak

Korbina errea gure erriko guisa.—Sauterne-ardoa.

Urdaiazpikoa naparguisa.—Napar-ardoa.

Bitarteak

Oliogayak, guria, chardiñak, chipiroyak eta beste alartak.

Janari-otza

Otarraizko mayonesa.—Burdeosko ardoak.

Bedarpilla, urrazkoa, lekak eta maillarrak.

Erreak

Idisko eraguiya.

Bildotsak labean erreak.—Ardo gorri-zarra.

Mayazkenak

Gozoak, udareak, mixikak eta matsak.—Sagardoa.

Babaismiña eta likurak.

Buenos Airesen Epailleko amabostean eta millazortzireun eta larogueta amaika.

Larramendi ta Aizkibel'en itzala —ona ala txarra?— argi ta garbi azaltzen da jaki-errenkada onen idaztanceran. Egia esan, aldi artako euskal-menu guzietan oartzten da itzal... kerri ori.

Begira bestela, Irun'en 1894'garren urtean Ruiz Capdepon Ministroa'ri eman zioten bazkari baten «cheamen» oni:

AY ARRIKO MEATZERI IKUSTAMENA

Irun-Uranzuko batzarrearen, On Trinitario Ruiz Capdepon, oso bitore jaun, ekadoyaren ekidariari menekioa.

Agorrillaren bederatzigarren eguneko bazkaria.

CHEAMENA

Zopa

Illar iriñduak Brunoise gisara

Jakiak

Basauntz azpizunak Villeroi gisara

Izokea arraultz-olio nasjakiagas

Erragosiak

Ollaskoak eizari gisara

Indiar lekak.

Errekiak

Aari-anka. Olio belarrak

Indiollo boillur eta aragilikarekin

Isotzora leka usaintzuarekin

Edariak

Riscal, Rioja, Manzanilla, Champagne, Cogniac, Anís,

Sagardoa, Garardoa.

Kafea eta Zigarroak (1).

Dakusgun orain, bukatu baño len, menu-gai oni dagokion beste arlo bat. Txiki-ariña, baña, ordea, bai gure errian eta bai besteetan ere eztabaidatxo bat baño geiago sortu dituana: zein izkuntzetan idatzi bear ote diran, alegia, jaki-errenkadak. Erri bakoitzaren izkuntza berariazkoan ala... prantsesez.

Urte askotan ia lurbira guzian frantzieraz idatzi dirala menu geienak, agerrian dago. Zergaitikbait dira betidanik jan-edan-sail auetan prantsesak nagusi. Baña, aitzitik, egungo egunean, kontrako joera oartzen da, ta jaki-errenkadetan maikideen izkera jatorrizkoa erabiltzen da, eskuarkiro.

(1) Irun'go lagun zar batek gaztigatzen digunez, menu au Ermojenes Balzola'k tajutu omen zuan, eta euskeratu Rafael Murga Murgategi'k. Argitaratu berriz, gure adiskide begiko Antonio Valverde'ren aiton Bernardo zana-ren moldiztegian egin omen zan.

Jakiña, badira izkuntza guzietan beste mintzoeretara ezin itzuli litezken jaki-izen bereziak: foie-gras, choucroute, roast-beef, zakouskis, spaghetti, paella, kokotxak eta abar. Ta jaki auek, itz berezi oriekin ezartzen dira menuetan toki guzietan.

Nere ustez, Euskalerrria'n, eta orain urte batzuk arte, euskera gaur baño geiago erabiltzen zan menuetan.

Adibidez, nere arrebak batek gordetzen du eskuz idatzitako paper zartxo bat, Obispoa, 1884'garren urtean, Orio'ko gure aide baten etxean izan zaneko euskerazko menuekin.

Dio: "*Afariya*. Ollanda erriac, usacume erriac, chuleta erriac, langosta ensaladan, arrangorri egosiya, legaz pregi-tuba. Chuletac ziran: gatza ta barachuriyakin eduqui eta ogui mamiya ta perregillaquin mantequetan igurzi ta paper chur-riyan erriac.

Bazcariya. Aragui tronzo bat guisatuba, ollanda guisatubac, ollanda erriac, usacumeac eta chuletac, langosta bayonesaquin eta chipiroi guisatubac. Ollanda erriquin piparrac eta usamea-quin corgetac atera ziran.

Guero, *bigarren afariyan*, langosta ensaladan, izoqui egosiya perregillarequin, chuletac eta legaz pregituba».

Beraz, gu nor izatera, egoki izango litzakela derizkiogu, antzi-nako oitura oni jarraitzea. Au da, geren erri ta etxeetako jaiak eta pozaldiak ospatzeko antolatzen ditugun otorduetako menuetan, euskera —euskera jator eta adieraz bat— erabiltzea.

Lanbide gaitza dala au? Bai, zera!...

Ona emen, adibidez, eredutxo bat. Lerro auen egille apalak, joan dan neguan, lagún-arteko bazkari-lege baterako idatzi zuana.

Jakiak

Lanpernak

Urdaiazpiko-gordin-zerrak

Salda-garbi beroa

Amorrai prejitauk

Arraingorri egosia

Arkume-saieski erria

Errege-sagar umatuak eta mamia

Kafea

Edariak

Sagardoa ta txakolifi zuria

Ardo gorri nafarra
Armagnac zarra

Egia da, maikide guziok euskaldun jator eta Euskalerrri'ko oitura zarren gordetzalle benetakoak izan arren, ez gerala bazkari artan limonada-tanto bat ere progatu. Bafña, egia esan, elur-eguna baizan, eta eguraldi otz-gogor arek etzuan edari freskagarririk onartzen.

Barkatu bada, jaunak, gure bekatua.

A. A.



¡Entzun! Emen Donosti

RADIO = T. S. F. = BROADCAST = RUNDFUNK

Garrantzi ta ajola aundiko asmakizun au euskeraz *RADIO-EDAKETA* deitu genezake. RADIO tresnaren bidez egunero mundu guztitik zear izketa, soñu, musikaldi, solas eta mintzaira mota guziak gure etxe barruan entzuten ditugu. Eta ez bakarrik entzun, RADIO'ren bitartez irudiak ere ikusten dira, Baitan gure artean ez da oraindik *RADIO-IKUSKETA* (Television) zabaldu ta lerro auetan *RADIO-ENTZUKETA*'z besterik ez gera jardungo.

Eta lenengo, Radio-entzule euskaldunen izenean esango dut, *RADIOZ* euskeraz mintzatzen maizago entzun nai genukela.

Donosti'ko Radioa'k astean bein edo beste euskal jardun aldia ematen digu. Guk errespeto ta itzal audienaz aren zuzendari jaunari eskatuko genioke, arren eta arren euskal itzaldi, abesti, ipui, elkar-izketa, eta abar sar ditzala. Eta zergatik ez ikastaro bat euskera-erdera erakusteko, prantzes, ingles eta beste izkuntzak erakusten diran antzera?...

Eskabide ori bera Radio Bilbao, Radio Vitoria, Radio Pamplona, Radio Eibar, eta Euskal-Errian dauden beste guziaz egiten diegu.

Londres'eko B. B. C.'k illean bein edo euskal leiaketa zabalzen du. Pozgarri zaigu jakin araztea. Ez gifiak asarre Paris, Madrid, iri nagusiak beste orrenbeste egingo ba'lute.

Londres'eko euskal Radio-edaketa entzunez ordea arras naitzababaturik gelditurik gaituzu.

Andik ari dan «speaker» edo izlari euskaldunak izugarri

zail, illun eta gogor egiten du euskeraz. Jaun orrek asko daki noski baiñan gogoan artu gear luke, Radio-edaketak aalik eta atsegingarriena bear dula; ta gaiñera jende geientzako ulertu erreza dedin mintzaera arrunta, garbi eta argian esana, entzule guziak ondo jaso dezaten. Euskeldunok, zoritxarrez euskera bakarra ez degulako, ordun eta arreta aundiagoaz, izkera erreza eta gai errikoienak aukeratu bear dira.

Ni ez nazute kontentagaitza; euskeraz izan ezkeru ezer gutxirekin konpormatzen naizenetakoa baizik.

Alaz guziz mingarri zait eta tamalezkoa Londres'eko B. B. C. bezelako eda-bide azkar eta indartsua gure esku illean bein izan eta ez obeto baliatzen jakitea.

Norentzat diardula uste du ordea, B. B. C. mintzazaile euskaldunak?... Oraingo euskaldunentzat ez beintzat! Entzuleak uxatu nai ditula dirudi-ta.

Ea bada aurrerantzean gure entzuleen iritziak onartzen ditun, eta euskeraz gaurko eguneko neurritz mintzatzan zaigun. Ez motrollo ta zabar; gutxiago ordea ulergaitz eta illun. Bien-arteko omen birtutea, au da: poz-jario ta argitasuna.

Onela egingo dulakoan EGAN'ek alde aurretik eskerrak ematen dizkio. Eta txaloak jotzeko irrikitzen dago.

IBALAN



GURE LURRALDEA

II.—"Ara nun diran..."

Joandaneke idazkian, lurraldearen, paisajearen aurrean, *ikuslea, idazlea* eta *pintorea* utzi nituen. Gaurko ontan, ikusle utsakin jardungo naiz.

Lurraldearen ikuste utsak, besterik gabe, (begiak biotzarekin batera ba'dabiltz), gogoari atsegin benetakoa lekarkioke, batez ere paisaje ori *gurea* ba-da; ainbat geiago *ezaguna* ba-da, eta anitz geiago *ederra* ba-da, Euska-Erriko itxas-lurrak diran bezela.

Naiz urrera, naiz urrutira, mendi-gain batetik, esker-eskubi dakusgun begiragaiak, beti, *zerbait* esan oi digute: mendi-egal orlegiak, baso itzalak, sakoneko erreka dizditsiak, basetxe zurien mota alaiak, an nunbaiteko urrunean, lañopean nabaitu degun aitz erpiñak... Danak izketan diardue, eta beren izkera, benetako kanpo-zaleak, arrunt adituko du bere gogoari dagozkion esanetan. Inor ez da zerbaiten gogorapena bere barruan nabaitu gabe geldituko.

Batak, an-emengo mendiak, aruntzagoko aitzak, beren ize nez berriro ezagutzen saiatuko da, luzaroko pakean arrixka baten gañean exerita. Atsegin izango du, *Urko* gañetik, *Aitzkorriren* ezkerrean, alako urruti batean, *San Donato*' ren kopeta gogorra aurkitzen badu. ¿Bera ote-da? ¿Ez ote-da? Zalantza auxe bera, asmatu naia, atsegingarria da.

Besteak, *Zelatungo* zelaitikan, esker-eskubiko begiratu betekin, Gipuzkoa osoa buelta batean inguratuko du: Bizkaya, bertan, *Oiz-mendia*, begipean; Araba, bertan, *Aloña* orren gibelean; Naparrua ementxe: ori dek *Aralar*. Ara emen, oñean, itxaso...! Zein txikia, zein ximurra, zein txukuna eta alai gure Gipuzkoako mendialdea.

Onek, bere aurrekoen jayotetxea egal batean atxituko du; arek, *Donosti*'ko *Gaztelua*, *Añorga*'ko keiak, *Santiyomendi*, *Men-*

dizorrotz... Danak, aizearen gañetik, galdera bat eg'ingo diote begien aurrean sortu zaioten ikustaldeari, eta lurrak, itxasoak, aitzak eta baserriak zer-edo-zer erantzungo diete.

Ez-du bear, kanpo-zaleak, ez idazle, ez pintore, ez jakintsu, paisajeari kutsu ongarri bat ateratzeko. Ara: Urte askotxoko kontua da auxe, 1917'garren urtekoa. Europa'ko gudualdia zan. Eibar'en, Sara'tar mutil gazte bat bizi zan, Praintzi'ko soldaduzkatik iges egindakoa: *Batichta*. Bainekian nik bere jayoterritik urrun, bakar eta samin, mutil gizajoa anitz eta geiago gogoratzen zala bere guraso, etxe eta parajietzaz, eta alako batean, gazte oneri biotzkada bat ematea asmatu nuen. Eibar'ondoko baserritar lagun bateri esan nion *Batichta*'rekin egoteko (alkar ezagunak ziran), eta jai-egun batean eraman zezala, *Arrate*'tik zear, *Maxamendi*'ra, eta andik, *Kalamu*'ko tontorretik, nik lagunari esandako aldera begiratu zezala *Batichtak*, *Jaizkibel*'en eskubitik, azken-urrutira: zerbait berea zana ikusiko zuela-ta...

Esan eta egin: *Batichta*, nere lagunarekin, *Kalamu*'ra igo zan, eta andik, bere jayoterrri maiteko *Larrun* mendia ezagutu zuanean, negar gozo bat egin bear izan zuen.

Saso batean Iparragirre batek bezela: "*zabal-zabalik begiak*", gurasoen lur bedeinkatuari begira...

DUNIXI



ERAKUSKETAK

DIONISIO DE AZKUE (Aranaz Darras'enean).

Gaur, margo-erti gayetan —pintura gayetan, alegia— naspilla ta zalantza asko dago. Margolari geyenak buruari begira egiten dute beren lana, baña au ez da buru kontua bakarrik. Edertasunaren gozoak txastatu, ta edertasunaren berri, irudiz —margo irudiz— aditzera emateko, biotza bear. Biotz gartsua, begi zoliak, eta bai esku trebeak ere, edertasuna igeskorra da ta.

Doai guzti abek eta geyago, ba ditu ugari, Azkue Jaunak. Bere lur-irudiak, barrena lasaitu ta atsegifnez batetzen dute. Gipuzkoako mendi bazterrak, Arabako landa zabalak, Levanteko itxaso bareak, antxe daude, oyalean ezarrita, Dunixik, bere begi garbiz ikusi dituen bezelaxe. Burua —ez berea, ez urkoena— gafiitiko jardunetan nekatu gabe, Dunixik badaki pintatzen. Eta ondo gero! Sisley'ek, Beruete'k, Pissarro'k, ez al zizkiguten Azkuek baño lenago, lur bazter abek berak erakutsi? Ez. Abek, Dunixirenak dira, Berak maitasunez ikusi ta maitasunez sortaraziak.

Danen artean, zein atsegifnena? «Aizgorri, ego aizearekin»? «Salvatierrako San Jorge larraña»? «Arabako zelaya»? Ez da aukera erraza. Gaya berdiña ez izan arren, danetan egillearen arnasa bera ageri da. Egillearen arnasa! Ez ote da au, egizko eder-lan guztien ezaubide ta bizigaya?

ENRIKE ALBIZU (Salas Municipales de Arte).

Argia ta margoa —kolorea— ongi daki manaiatzten Irungo seme jator onek. Margolari trebea, zintzo sayatu ezkerro, urrutira eldu ditekena. Gaurko gazteak, ez dituzte maite izaten, al-

dapa nekagarritzko bide luze ta latzak, baña oyek bakarrik eramaten dute gora. Albizuk, ba du aldaparik gogorrenetarako sa-soia. Bere emakumezko irudiak, guztiz atsegifiak zaizkigu. «Marilyn», «Bordando» ta abar. Giza-irudi onak ba ditu ere. Lore sorta politak ere bai.


Gure iritziz, Albizu bezelako margolariak, ez dituzte beren lanen gayak geyegi aztertu bear. Buru azterketa oyek, eskuak lotu egiten bai dituzte. Albizurenak azkarrak dira ta ez lotuta egotekoak. Gureak berriz, bere lan ederrak ikusita, ez dute geldirik egon nai. Bijuakio beraz EGAN'en orrialdeen bitartez, txalo bero bat, Irungo margolari bikafñari.

JOSE MARIA GONZALEZ DE ETXABARRI (Salas Municipales de Arte).

«Peintre animalier». Ta ona gañera. Aberezkoak ez ezik, ba ditu lur-irudi politak ere: Valladolideko gari sallak, Burgos'ko El parral inguruko basoa, Candanchu aldeko elur zokoak.

Azken urte abetan, medikuai, onelako doai berezi bat sortu zaie, beren lanbidetik kanpoko gauza askotarako. Literatura ta pinturarako batez ere. Orain dala lau bost urte. Madrilleko sendalariak, ots aundiko erakusketa, esposizio bat egin zuten. Gonzalez de Etxabbarri jauna sendagillea da. Baña ez bildur izan. Margolari ona degu. Zorionak!

J. M. L.



ZINEMA

LIMELIGHT ("CANDILEJAS"). Iritziak berezi dabilta. Ez-tut bear baiño geiago esan uste, ikusle geientsuen —goiko eta beekoen— gogoko izan dela esatearekin. Eta ori ez emen bakarrrik, nondinai datozkigun berriak oi baiño gezurtiagoak ezpadira. Zenbait kritikok, berriz, arrera uzkurra egin diote. Leengo Charlot izaki gogoan, Baroja'k XIX'gn. mendeko literatura bezala, eta gaurkoa eskasa arkitzen aren ondoan.

Besten aburuak beste, goazen gauzei apur batez gere begiz, betaurrekorik gabe, begiratzera. Egunean eguneango kritikak, nork nai daki ori, eztu zuzen irizten askotan, ez geienetan ere bearbada. Guri ere, okerrenean, jakintsuenei gertatu zaiena berbera gertatuko zaigu: erdiz-erdi uts egitea. Ala balitz, litekean bezala, ezkeundeke lagunarte txarrean. Baditeke, ordea, alabe-arrez besteak oker egotea ere. Lasai abia gindezke, beraz.

Teknikaren aldetik esankizunik eztago. Ortan Chaplin'ek bulda berezia izan du beti, leen eta orain. Eztu, besteen antzera, kamera batetik bestera gelditzeke mugi-bearrik, ikuspide berrien billa. Orrexek arritzen ginduen orain arte, kritiko asko-jakiñak eta gu. «Begira, esaten ziguten, eztu orrek besteen gisa apainduri aberatsen bearrik. Bizpairu xatar naikoak ditu ikusgarri agertzeko.»

Izketarena, beste kontua da. Soifua, eta arekin batean itza, agertu zenean zineman, leengo mutuan iraun zuen Charlot'ek. Gogoan daukat nola zioten orduko maisu ikasiek: «Egiazko zinema, zinema utsa, ixilla da berez; eztu itzaren bearrik. Zinema jator onek, Chaplin'enak, aski ditu orain ere zeifnuak eta imintzioak, irudi soilla, itxurazko edergarri berri oriek jantzi gabe.» Baiña Charlot bera, urteekin, asi zen etsaiagana urbiltzen. Ta azkenean, nork esan, iñor baiño berritsuago azaldu zaigu. Zaarra iztuna izaki nonbait.

Aitzakiak aise billatuko lizkiokete, ordea, nai balute. Neurritz gairako gizona, genioa —itz ori amaika aldiz entzuna dugu—, ezta besteen legetara makurtzeko sortua. Nola orduan uka zerok eman dizkiozuten eskubideak? Itzegin nai duelako?... Uztaiozute gizonari itz-aspertu bat egiten, atsegin ezpazaizue ere.

Melodrama omen da. Itz beldurgarria, euskaldunen artean («Damua garaiz» eta) guztiz ezaguna. Naikoa litzake ori entzutea txunditurik gelditzeko. Naikoa litzake, oroimena arras galdu bagendu. Noiz ezta izan melodrama ugari Chaplin'en zineman? Beti izan da negartia, parre-algara eta negarra elkarrekin naasiak ibilli dira. Eta ez biotz-ukitu ixilla, irri-parre goibela, malkoixurtze nabarmena baizik.

Eta badu negarbidetara oraingoan, ifioiz izan badu. Zaarra begiramen-zur omen dabil, berak dionez. Orregatik edo, antzez-tokirako utzi ditu pailasokeriak —txarlotkeriak—, berebizikoak badira ere. Andik kanpora, estalki urria du Charles Chaplin'ek Calvero'ren izena. Chaplin berbera agertzen zaigu eta Chaplin berbera mintzatzen. Negu-miñeko otzikara ezur-muinetan nabaitzen badu ere, adierazi nai digu zein diren goxo oraindik udazkenburuko egun epelak, bere laburrean zein eder. Illunabarrak, udazkenak —eta gau-neguen itxuraren azpian izkututzen zaigun erioitzeak— zirrara ezti-mingotsa zabaltzen digute biotezan, egun-sentia eta udaberriak ez bezala.

Bere buruaz ari zaigu emen Chaplin. Beera-bear ori, zaartu eta il-bear ori, guziona da, baiña berea batipat. Lotsarik gabe? Ala bear ere. Film au, bakoitza bere arabera eta neurrira, San Agustin edo Rousseau'ren Aitorkizunen saillekoa dugu. Eztu artean zinemak olakorik egin, ezta egingo ere berealakoan, ezpaitu iñork, askoren eta batez ere diruaren mendean dagoen mundu artan, ortarako erarik erraz izango. Baiña, leena eta agian azkena izanagatik, zer dela-ta uka zinemari literaturari onesten dioguna?

Beste film bat egiten ari omen da Chaplin. Zer esan diezaguke, azken itza esan ondoan?

NOUS SOMMES TOUS DES ASSASSINS. Lotsagarria den edo ezten, film au gogoz ikusi dugula aitortu bear. Egunoroko egaztijateak okitzen omen gaitu azkenean. Eta gure zineetan egunoro maieratzen diguten jakia ezta, egia esan, egaztikia. Bein beintzat, besterik ezpada, gure alda-naiak arkitu du non ase.

Ezkera orain oi den bidetik abiatuko: gertakizuna poliki jostia dagoela, olakoren lana arrigarritzko dela, besteak ere ainbestean egin duela, eta abar. André Cayatte'k etzuen iñoren jolaserako egin film au, orren bidez mandatu bat —gaur esaten den

bezala— zabaltzeko baizik. Ikusleak astindu nai ditu eta lazki marruskatu, ez balakatu. Betiko leloak utzirik, beraz, ez tirudi lan alferra dakarren mandatu orri begiratzea eta batez ere gu-rean izan duen arrerari.

Cayatte kontentagaitz orietakoa duzute eta gauza batek kezcatuen du aspaldian. Etzaio nonbait iruditzen legeak ongi jarriak daudenik edo, obeto esan, etzaio iruditzen legearen zigorra bear bezala dantzatzen denik. Esate baterako, eriotzez iltzen ditugu, Detxepare'k zionez, gaizkillerik okerrenak. Ongi dagoen ala ez, zalantzan jarri da, eta zalantzan jarri nai ginduzke. Gauza bat nai liguke ikuserazi, besteak beste: goragoko «ditugu» ori eztela mintzatzeko modu utsa, «guk» iltzen ditugula alegia, ez tituela «beste norbaitek» iltzen.

Bijoaz aurretik oar batzu. Eztugu orrenbestez esan nai berearekin bat gatozenik. Ara zergatik. Film eta novela tesisdunak baiño bide zuzenagorik ez ote dago auzi naasiak garbitzeko? Esaten digutenaren zai itsu-itsuan bagaude, egun ona biar ara ibiliko gera, orbela aizetan bezala. Orain eskola billa, presondegi ordez, gizarteak eta azibide txarrak gaiztotu dituen gaizkilleentzako; urrengoan, urkamendia edo gillotina gutxietsirik, gizonak laurdenkatzen zituzten aldi eder aiek in ametsetan. Eta, errukiak garamazkien ezker, esan dezagun gizona, bereala il bearrean, 30 urtean usteltzen edukitzea badaezpadako errukia iruditzen zaigula. Egia ere da, bai, gaizkille ustekoa gaizkille eztela agertzen denean, eztirela gauzak, urkatu ondoren, erraz antolatzen.

Orain, ordea, eztigu ajola Cayatte zuzen ala oker dagoen jakiteak. Gauza batean zuzen dago, ifolaz ere. Zuzentzan ere, lanbanaketa sortu dugu beste galetan bezala, edo besteetan baiño leen bearbada. Gaizkille ustekoa batek atzi, besteak gorde giltzapean, besteak kondena, besteak urka... eta besteak, guk alegia, egunkarietan irakur. Badugu denok, esaten digu Cayatte'k, bai gerok ere, zer ikusirik auzi orretan. Ez geroi —gogorrangoak ikusi izan dira— gerta dakigukelako bakarrik. Ez; ez telako aski gairera gizon bati, urkatzaillari, erru guztia egozte eta ura gizartetik baztertzea. Gerok urkatu bear bagendu, alegia, pentsatzen dugun baiño astiroago pentsatuko gendukeala, bein ta berriro, zertan ari geran.

Gure jendeak eztu, dirudienez, gogoko izan film au: eztu luzaroan iraun beintzat. Zenbait gauza ez omen ditu ikusteko atsegin. Kritikak ere, Donostia'ko kritikaz ari naiz, naigabetsua zelako edo, eztu deus askorik esan. Jendeak nai duena ematen

omen zaio emen jendeari. Obeki esana legoke, apika, eman nai diotena eskatzen oitu dutela jendea.

Aldi onetan zenbaitek erri xeeari —populuari— azken itza eman nai badio ere, zertan eta arte-gaietan, elitzake arritzeko erri xeeak gai kaxkar eta belaxketara jotzea. Gure kritikarekin arrituko gifiñake, arrimena aspaldi galduak ezpagiña. Gizona gizonari dagokion legez jokatzeko ikusteak arritzen gaitu, egia esan, bestek ez bezala. Ez ote genduen ikusi nola joan zen «Monsieur Vincent» —etzen film txarra— tximistak egiten gure artetik, karitateari buruz zalaparta geiegitxo ateratzen zuelako edo, gure kritikak, edozein «Sor Angélica» edo «Madre Alegria» laudorioz betetzen duen kritika orrek, txintik esan gabe?

Langilleak atsedena merezi du, ezin gagozke beti gora begira: egia. Geienei atsegin zaigu, nekatuak gaudenean, «denbora-paxako» uskeriak ikustea: egia ori ere. Baiña noizean bein, orain Cayatte'k bezala, guziori dijoakigun auzi larri batez mintzatzeri datorkigunak ere arreta pixka bat merezi du gure aldetik.

Gure kritikoek bere eginkizunari eta bere erantzunbearrari, bein edo bein bederen, begiralditxo labur bat opako baliote, elukete noski geiegikeririk egingo. Ezta aski sarrera doarik izatea. Maisutza ori bere gain artu duten ezkeror, gidaritza dagokie, ez artaldearen atzetik ibiltzea. Eztaude gonak laburxkoak edo luzexkoak diren esateko ere. Aukerako gona-neurtzailleak baditugu, aukerakoak eta ugariak, beste zeregiñik gabeak, ortarako apropos jarriak. Jendeari bere lo nagian iraunerazteko eztugu kritikaren bearrik: gerok gera ortarako aski eta geiegi. Jendea esnarazteko bear dugu kritika. Bestela, itsua badabil itsu-mutil, ongi jaloak gaude.

L. M.

Oargui'ren irugarren batzaldia

Irugarrenez bildurik gaituzu Oarguitar gazte arikorraikin ain egoki antolatzen dakiten jaialdi atsegingarri batean.

«Egia da latz eta garratz», diño euskal-esakun zahar batek. Eta zergatik uka? Azkeneko batzaldiak eztu eman eragilleak itxaro zuten zituaren laurdenik ere, Besterik esatea geronen buruak engañatzea iltzake eta euskaldunok naiago dugu egi latza bidelagun ibilli gezur zurikagarririk albotik euki baiño. Orra ba. Aurrekotan ogeitamar lanetik gora aurkeztu zituzten eta oraingoan sei doi-doi.

Utsegiteak sortzen diranean, auen erro edo sustraiak nondikako diran aztertu bear lenengo eta guri onoko auek irudituz zaizkigu zitu urriaren erroak: 1.º, azterpen edo examin garaia bete-betean egokitu dela eta gure estudiante eta praillegaiak ba-zuten beste zertan burua autsi Oargui'ko sariketarik gabe. 2.ºgn., gure ustez, Oarguitar saiatuak, euren euskal-garrak eraginda maiztxoegi erutzen dituzte batzaldiok eta idazleak ain epe laburretan jardunaz nekatu edo egiten diran, dugu pekoa.

Sei idazlanok lenen maillekoak izan dira, euskal-ikasleak *kale* egin baidigute bete-betean.

Lenen saria Etxebeste'tar Iñaki'k jaso du «Evoluziño ta Genesis» deritzan *philosophi* saio politagatik. Aita Onaindia'ren «Milla euskal-olerki eder» eman zitzaion sarigarri. Bigarren saria Zelaia'tar S'ri «Ederti arloan» deritzan lanagatik. Kritika-saio ernegarri au irutan dauka zariturik Arantzazu'ko praille gazteak: Ederti ta zinema, Ederraren metaphisika, Ederti ta zilleizti (moral). Sarigarri A. Mitxelena'ren «Ama-emeak» eman zitzaion. Aipamena, Aresti'tar Gabirel'i *Pigmalion euskaraz* deritzan idazlan sakon eta aoxurigarriagatik. Benetan arrigarria, tutik ere euskeraz etzekien Bilbotar gazte onek egunez-egun

dagien aurrerapena jakintza-gaiak euskeraz borobildurik. Zorionak biotz-biotzez iru euskal-idazleoi eta jarraitu asitako bidean barrena.

Urrengo sariketa epea Santu-Guzi-Eguneraño jarri dute Oar-guitar zuzendariak. Ona gaiak: Lenengo maillan, «Europa'ren etorkizun politikoaz kritika lan bat» eta «Aldizkari-kronika» (crónica periodística) bat. Lenengoa goituxamarra ba'da, ta talde bereizi batentzat mugaturikoa, bigarrenkoa xalo ta arrunta da, edonork idatzi dezakena. Bigarren maillan, gaia aukeran. Olerkirik ezta aintzakotzat artuko eta idazlanen neurria beti bezelatsu, lau-bots kuartilla makinaz.

Ots! euskal-idazleok, zorroztu zuen lumak Santu-Guzti egunerako!

E'TAR. Y.



ADABAKIAK

Oraingo gazteen "bertso-berriak" eztitut nik berealakoan ulertuko. Argitaratu dituzuten Mirande'ren olerkiak, zer esan nai dute? Zer esan nai du batez ere "Paranoia" dalakoak? Galdera au «Euskaldun zar batek» egiten digu.

Guk ere, biotzeko «Euskaldun zar» ori, eztugu poesi-gaiean Txirrita edo geienez ere Xenpelar baiño askoz gorago jo. Legezaarrekoak gaituzu bada. Baiñan, badakizu, jendartean gaudeanean, gere burua besterana baiño beerago ez ikusteagatik edo...

Dudan jarri gera gaiñera, gure usteak zuzen dauden ala ez. Sifnestarazi ziguten, arte-kontuan, gure Oteitza'k eta Chillida'k, esate baterako, burutik egin zutela edo adarra jotzen ari zitzaizkigula beifipein. Ikusi-berria dugu, ordea, Italia'ko pintatzaileen erakusketa; zerorrek ere, donostiarra zeran ezkerro, ikusi bide duzu. Eta aitortu bearrean arkitzen gera orien artean elirakeala Oteitza'ren edo Chillida'ren eskulturak nabarmenegi agertuko.

Zer pentsa, bada? Italiar geientsuak, guztiak ezpadira, pintatzen dutenak beintzat, erotu, zaizkigula? Gogorregia dirudi orrek. Zerbaiten billa dabiltzala pentsatu bearke bestela gaurko artistak, zenbait urteren buruan guziok, guk orain ez ikusiagatik, argi eta garbi ikusiko duten zerbaiten billa.

Leku txarrera joko zenduke beraz guregana, Mirande edo beste edozein gaurko olerkari berriren poemak barrentzeko argieske. Neurritz, ibilleraz, puntuetan, arña eta egoki-egokia dela: zer geiago esango genizuke? Jainkoari eskerrak, ordea, baduzu oraingoan gurea baiño argi bizkorragorik. Emen eskeintzen di-

zugun adierazpena, interpretazioa, lege-gizonek jatorra deitzen dutenetakoa da, egillearena berarena. Ona zer dion:

«*Undina*: poema simboliko bat da, eta aipu detan itxasneskak arima edo giza-psykhea ikurtzen du. *Paranoia*: au idatzi nuenean ez nion zentzurik batere josi nai izan: surrealisten «cadavre exquis» bat da, bainan bearbada zentzu gabeko neurtitz oietan besteetan baino olerti geiago idoro daiteke...»

Etzen beraz arritzeko ez zuk eta ez guk zer esan nai zuen ez jakitea. Ikasteko jalo gifan nonbait mundu onetan.

* * *

Aingeru Yrigaray lagun-zar on orri, agur: Oso pozgarria izan zait zuk argitutako XVII eunkadaren karta oien irakurtzea. Nere ustez, oiek dira euskerazko leengoetako karta ezagunak. Bejondeizula.

Hernando Loitia ori, Hernando Lortia izango zan seguru asko. Lortia asko dira Errezillen garai oietan. Eta Hernando Lortia orixe bera Donostian agertzen zaigu 1623 garren urtean.

Medikua zan ezkeru, ¿ez ote zan nolabait Maese Juan de Lortia «cirujano de Jaca», mediku famatuaren aidea izango? Au maiz ikusten da gure liburu eta paperetan. Imaz Iturrioz eta Vifñes'ek zerbait eskribitu dute orretzaz. Zuk, mediku azkar zeran bitartez, jakingo dezu noski Juan de Lortia'k sekulako egiñalak egin zituela Pasai, Donosti, Iruñe'n eta abar «peste bubónica» sortu zanean zanpatzeko. Orduan 57 urte zituen.

Barkatu, arren, nere okerrak. Ez, baño, zuzendu. Nere okerrak ikusi-ta, beste nere orrelakuak saiatuko dira, al-duten bezela cuskera eskribitzen. Zure-zurea,

F. AROTZENA

* * *

“*Tximistarri*”-ri.—Euskalerrria'n egungo egunean beste edozein erritan baño olerkari geiago ditugula? Baliteke. Baña gauza bat da bertsolari izatea ta beste bat olerkari izatea. Batez ere, olerkari ona. Bizkaitarrak esaten duten bezala, or dago *untzea*...

Bai, baditugu gaur gure artean olerkari on batzuk, eta txit onak gafiara, bafia gutxi.

Dana dala, txarrak edo onak, ezin uka Euskalerrria'k gure mende ontan aurrekoetan baño olerkari geiago eman dituala.

Onela zion 1612'garren urtean Alonso Jeronimo Salas Barbado'k «La hija de Celestina»-n: «Bastará muy bien a dar

provisión de esta mercancía —oiala—, quedándole la casa llena, a todos los poetas de Castilla, con haber tantos que se pudieran hacer a sus tiempos sacas dellos para Vizcaya, atento a ser tierra que no los lleva y que para tenellos es fuerza que los traiga de fuera del Reino».

* * *

Trakurle batek izkirimiri *surrealista* batzuk eskatzen dizkigu.

Egia esan, gu *unore* oneko gizonak izan arren, EGAN bezain *errespetoko* aldizkari baterako orrelako izkirimiriak ez ote diran oso egokiak, derizkiogu. Dana dala, or dijoa ale bat. Eta... or konpon!

Bein batez, *kafeteri amerikano* batean zaldi bat sartu zan. Eta kafe-esnea eskatu, katillua ustu ta, ordaindu ondoren, aldegin zuan...

Txunditurik, bezero batek *kafeteri-zaiari* esan zion:

—Arranoa! Egundaño orrelako gauzarik ikusi bear genduanik ere...

—Zerbait badiozu! —erantzun zion besteak.

—Zu ere arritzen zera, beraz?

—Bai, gizona. Besteetan zaldi orrek beti txokolatea artzen bait-du...

LIBURUAK

- A. Villasante, O. F. M. Euskaltzaindikoa. «GOI-ARGI» Ars'ko Erretore Santuaren Erakusaldiak. (Editorial Franciscana.—Aránzazu).

Berrion eta zorion, euskaldunak! Arantzazuko euskal-lantegitik beste liburu egoki bat agertu zaigu: «GOI-ARGI». Jean-Marie Vianney, Apaiz Santuaren itzaldiak eman dizkigu euskerara ta argitara A. Villasante prantziskotarrak.

Aspaldi batean, «Txomin»'ek egindako «AK-KO APAIZ DONEA» argitara zun ARGIA asterokoak. Apaiz Santuaren bizitza erakutsi zigun, labur-labur, liburu txiki ark. Santu aitortu zun eguneko itzaldian, Pio XI'k beste gauza askoen artean, au esan zun: «Zoriondun Apaiz onek, bere arrigarritzko bizitzaz, otoitz sutsuaz, ITZALDI XAMURRAZ, Jaungoikoarekiko ta lagun urkoaganako zaletasun gartsuak egin-erazi zizkion lanaz eta bere bizikera apal-apalaz arima asko zeruratu zitun».

ITXALDI XAMUR oiek ditu gai, A. Villasante langilleak euskeratu ta opa digun liburu berriak. Liburua nolakoa degun? Iru gauza oi ditu liburu batek: mamia, izkera ta itxura.

MAMIA.—Gure liburuarena ezin ohea izan. Kristau-ikasbi-dearen lau zatieri dagozkien erakusaldiak dakartzi, bata bestea-ren ondoren. Orrela, Jesukristok erakutsitakoa erakustea besterik ez du egiten; eta Ark erakutsi-bezela, gañera: aundiak eta txikiak; jakintsuak eta ezjakiñak; guztiak jabetzeko gisan. Goi-argi bizia euki zun piztu-ta Apaiz Santuak Ars'eko errian, an egon zan 41 urteetan; eta argi uraxe luzatzen digu orain liburu-txo berriak.

«Eguneroko lan, gertakizun eta goraberak ematen zioten oin,

ari ta bide zero ta animako gauzak argitzeko ta aditzera emateko.» Beste mundutik etorritako santua omen zirudian, bere erakusaldiak ematen ari zanean...

Ez omen zan Vianney Apaiz Jauna buru argikoa; berak ikasitakoaz baño geiago, Jaungoikoak erakutsitakoaz egin omen zun diz-diz ludi osoan. Mami argitsu uraxe datorkigu dizdizka «GOI-ARGI» liburuan.

IZKERA.—Ars'ko Erretore Santuak guztientzat egin zitun erakusaldiak, guztientzako bezela euskeratu ditu A. Villasante azkarrak. Euskera erreza darabil, errikoia, ederra, ugaria. Ez diteke, noski, arrazoibidez, iflor espa-jarioka asi; ez gora-zalerik, ez errez-maiterik. Ondo goaz, bide ortatik...

ITXURA.—Ikusi, eta irakurtzeko gogoia ematen dun liburua da «GOI-ARGI»; irakurtzen asi baño len begietatik sartzen daretakoa. Ars'ko Apaiz Jaun Santuaren irudiarekin, moderno-kutsukoa du azala; orrialdeak, tinta gelegirik gabe, ta neurri oneko utsuneeekin, irakur-errezak; «xantuak» politago, noski, txikiak; atzeko ezala ere gogoangarria: «Sal neurria: 15 Pta. «¿Zer dago gaur 15 pezetakin? Bejondakiola Arantzazuko pralleen irarkolari!

Kristau-bizitzari on aundia egingo dio «GOI-ARGI»k euskaldunen artean; bai euskerari ere. Baño, ortarako irakurri egin bear...

Zorionik eta eskerrik asko A. Villasante jatorrari.

Z. A.

Camilo José Cela. *HISTORIAS DE VENEZUELA. LA CATIRA.* Editorial Noguer, S. A. Barcelona, 1955.

Gogor ekin zien Orixe'k, duela zenbait illabete, euskaldun «berrizaleei» Buenos Aires'ko *Euskalduna* aldizkarian. «Euskaldunak» zuen izena artikulok ere.

Etzen izkuntzaz ari: mamiari dagokion auzia zen eta da. Gaurko zenbaiten lanak, "cultura-ren izen nazkagarri ortan",

gertuagoak omen dira gure erriaren gogoia ondatzeko lantzeko baiño.

Auzi ori berori bizirik dago beste aldeetan. Are biziago, Euskal-eritik kanpora, Ezpaikera euskaldunok besteak adinbat sartu «oraingotasunean» gaurko bideetan barrena. Ala uste du beintzat batek baiño geiagok. Neronek ere egingo nuke, iñork eskatuko balit iritzia, gorde bear genituenak oro gorde eztitugularik, eztitugula ere galdu galdu bearreko guztiak.

Cela novelagille ezaguna de Espaiña'n. Sail ortan, zuzen edo oker, buruzagitza emana —ala artua— dauka, bere «Pascual Duarte» dela bide, batez ere.

Toki-aldatze billa, Venezuela'ra jo du oraingoan. Eztatik zenbat denbora eman duen an, an izan baldinbada: bi, lau, sei illabete edo bi urte. Dena dela, buruan —sakelean ezpada— novela bat duela etxeratu da.

Egonaldi ori, laburxkoa izanagatik, aski ta geiegi izan du «llaneroen» —ango zabaldietako gizon-emakumeen— izkera ikasi eta barra-barra egiteko. Ezta arritzeko. Jainkoak, denok dakigunez, doai bereziz argitzen eta zorrozten ditu artista garaien gogoak. Orrelaxe, naikoa izan zuen Victor Hugo'k amabostalditxo bat Pasaia'n euskeraz ederki mintzatzeko. Or ikasi zuen noski *etxeko jauna* «le laboureur de la montagne» dela frantsesez. Egia ere da orratik inguruko baserritarrek, berberak arri eta belarri egiñik aitortzen digunez, etzietela aren euskal-saioei alako arrera ona egiten —parre ere egiten omen zuten lotsagabe aiek—, baiña etzen orregatik asko larritu.

Cela galiziarra da, Valle Inclán'en erritarra. Au ere ibillaldi luzeak egia zen, irudimenez bederen. Etzuen bizarra bakarrik luzea. Ameriketako berriak —«Sonata de Estío» alde batera utzirik— «Tirano Banderas»-en eman zizkigun. Ura liburua, eta batez ere ura mintzaera! Ni beintzat Valle Inclán'en txorimalo parrre-ikaragarri orien aotik ixurtzen den jarioak enau berealakoan asetzen.

Valle Inclán, ordea, zentzudunago agertzen zaigu bere eroan gaurko gazte zuurrak baiño. «Novela de Tierra Caliente» izengoitia erantsi zion bere liburuari. Eta «Tierra Caliente» ori, jakia, eztago iñon edo, berdin dena, nonnai dago, Río Grande'tik beera izan ezker. «Lurberoarren» errenkurarik eztu beraz iñork aditu.

Cela'k eztu izkuntza berririk asmatu: ezta edozein orretarako gai. Venezuela'ko «beterritarren» izkera eman nai izan digu, eta zeazkiro eman. Baiña beterritarrak or daude, aien izkuntza ere bai, eta ezin eragotzi nai duenari izkera orrekin Cela'ren li-

burukoa berdintzea. Eta alde ederra omen dago, dakitenek diotenez, batetik bestera.

Gatozen mamira. Cela'k Venezuela aldera jo baldinbadu, gogoko eizea arkitzeko ustean jo du. «Tremendista» baten neurriko eizea, besterena baiño beldurgarriagoa, an ugariagoa delako edo, Venezuelarrek diotenez, urrutiko gozurak ederrago agertzen dirak.

Mende-azkenetako idazleak, «poeta madarikatuak», zorrez, gosez eta batez ere krakaz beterik bizi ziren. Idazlanetan, ordea, loitartean zebiltzan ar edo txitxare zirelako aiek gora begira egoten ziren beti, izar dardartiekin ametsetan. Gaurko gazte azkarrak berriz, dotore jantzirik, lasai bizi dira etxe txukunetan, eta naiago dute diru ugaria dirurik eza baiño. Nazka-izugarrikeriak literaturan maite dituzte.

Cela ezta bestelakoa. Ondo jaioa, leunkiro azia, goiz asi zen —gazte zuurrari dagokionez— bizibide eroso baten billa. Arriskuak, gizon-iltzeak, kraka, lanbide zikin eta eskasak maite ditu, baiña urrutitik. Zenbait kristauak zerua bezala; ara joan nai, baiña zenbat eta beranduago, obe.

Gizon prestu eta kristau on batzu —ez geiegi, «burgesa» ezpaita leen bezain erraz asaldatzen— bere onetatik atera dituzte liburu onetako nabarmenkeriek. Azala ain minbera ez tutenek, ordea, galdera bat egingo dute: nabarmenkeriak, zer dela-ta eta zertarako?

Bi fede —illa eta bizia— bezala, bi arte-mota dira: zifetakoa, jatorra, eta aizuna, gezurrezkoa. Txantxetako edo itxurazko arte au bereizgarri nabari batek salatu izan du, leen eta orain: iges-naiak. Maite-miñak bat-batean jotzen dituen gazte lirain dirudunak dira batzuentzat igespide; besteentzat, beatz bati eragiteaz eun etsai lurreratzen dituzten gizon beldurgabeak. Gure tremendistentzat, berriz, Extremadura-n, Venezuela-n edo nik aal dakit non zentzugabeko izugarrikeriak egiten dituzten giza-itxurako bi-oiñekoak.

Ausardia bear gizonak, dirudienez, gordinkeri biribillak esateko. Dirudienez... Ongi ikasi ezpagendu geienetan, beti ezpaldinbada, ausardi geiago bear dela edozein arrazoizko uskeriz mintzatzeko burugabeko nabarmenkeririk gogorrenak esateko baiño! Badugu nora begiratu gure inguruan eta gere baitan bertan. Aitzaki billa gabiltza Venezuela'n, gure eginbearrari igesegiteko.

L. M.

PUBLICACIONES

DE LA

REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE
MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLORENDA,
por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR.

por M. Ciriquiain-Gaiztarro. (Agotado).

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIE-
DAD VASCONGADA, por José María de
Areilza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TEL-
MO, por Gonzalo Manso de Zúñiga
y Churruca.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE
LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON
OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE,
por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE
AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A
FINES DEL SIGLO XIII, por Manuel
Laborde.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCON-
GADA DE AMIGOS DEL PAIS.

Ejemplar suelto: 15 Ptas.

Suscripción anual: 40 »

EGAN: Ejemplar suelto: 10 Ptas.

Suscripción anual: 35 »

Suscripción anual conjunta a BOLETIN Y
EGAN: 75 Ptas.

MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales.
Número suelto: 10 Ptas.

Redacción: Palacio de la Diputación de Guipúzcoa
Administración: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN



ESCELICER, S. L.
SAN SEBASTIAN